

ttipi ttapa

344



Alicia Aleman
turismoa aztertzen

03

Baztan eta Baigorriko turismoaren bilakaerari buruzko doktorego tesia egin du ingelesez baztandarrak. Abenduaren 16an aurkeztu zuen Estatu Batuetan.



Cesar Sarratea
zesta-puntista

32

Jai-Alai zesta-punta taldean arida guraso baztandarrak dituen pilotari hau. Euskal Herriko txapelketan ari dira eta etxeko partidak Elizondon jokatu dituzte

2003ko otsailaren 20a • XXIII. urtea

04 Bertako sagarrondoak aztertu eta berreskuratu dituzte Juansenean



MUEBLES AMETS

Iarunbat
arratsaldetan
irekia

4000 m² erakusketa

**Sarrera
BERAtik da**

*Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga*

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA

www.mueblesamets.com



Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak
AUKERA HANDIAK



Ingurugiro estudioak eta basogintza proiektuak

*1995-tik lanean ari den
hurbilleko talde bat*

basarte



Nafarroako etorbidea 5, ezker solairuarte, zortzigarren bulegoa - 31012 IRUÑEA (NAFARROA)
Tel./faxes 948 19 63 51 / e-mail: basarte@basarte.com

DATUAK...

• 29 urteko baztandar honek Nazioarteko Harremanetan doktorego tesia Baztan eta Baigorriko turismoaren bilakaerari buruz egin du, ingelesez. Joan den abenduaren 16an defendatu zuen Estatu Batuetan.

• Gure galderei Perutik erantzun dio. «Nazio Batuetako Garapen Programan lanean ari naiz. Urte bateko konbenioa dugu eta gero ikusiko dugu nola den esperientzia, zer aukerak ditugun eta erabaki bat hartuko dut».



Alicia ALEMAN *Turismoari buruzko tesiaren egilea*

JOSUNE ITURZAETA

ELKARRIZKETA

«Emakumeak garrantzi handia du Baztango turismoaren bilakaeran»

Aitor AROTZENA

Nola gogoratu zitzaizun Baztan eta Baigorriko turismoaren bilakaerari buruzko tesia egitea?

Ohartu nintzen ni leku berexi batetik nentorrela, leku txikia, berdea, rurala, zaharra, muga inguruko eskualdea eta ohartu nintzen gutti bana-kiela eta interesgarria izaten ahal zela tesi bat egitea fenomeno kontemporaneo bati buruz, turismoa, baina bere kontestu konplexuan kokatua. Muga interesgarria iduritzen zitzaidalako, gauza bera egin nuen Baigorriko kantonamenduan eta bi haraneko turismoaren bilakaera aztertu nuen sakonki. Hasiera batean ez nekien sobera ongi zein urtetik aztertuko nuen turismoa. Gero, ikerketarekin asmatu dut turismoko kronologia bat eta aztertu dut nola zen turismo mendearen hasieratik, «Belle Epoque» turismoa deitzen diodana eta nola bilakatu den oraingo turismo rurallean.

Zein dira tesi honekin atera dituzun ondorio nagusiak?

Ondorio aunitz atera ditut, lehenbizikoa hemengo jendeen gogoak eta

«Baztanen aunitz igo da turismoa azken 10-12 urtetan, turismo ruralaren inguruan. Duela 15 urte genuen turismoa ez zegoen antolatua eta kontabilizatua»

borondatea solas egiteko eta hausnartzeko hemengo prozesuei buruz. Gero, tesiaren barnean aipatzen ditut zeintzuk diren Baztan eta Baigorriko turismo bilakaeraren ikasketa nagusiak, zer ikasi dugun. Baigorriko prozesuan uste dut ikasi dugula turismoak dituen balore ez-ekonomikoak, hau da, balore patrimonialak edo dinamitzatzaileak (exenplua da nola lotu den turismoa lehenbiziko sektorearekin) eta batez ere ikasi dugu turismoaren garapenak behar duela lekuko kontrola, gauza itxusiak eta gatazkak ez suertatzeko turismoaren inguruan. Baztanen, berriz, ikasi dugu emakumearen garrantzia turismo garapenean, nekazalturismoa eta turismo ruralaren desberdintasunak, eta lekukoek asmatu behar dutela turismoaren norabidea hasieratik, gero turismoa ez lokartzeko.

Azken urteetan aunitz igo da turismoa Baztanen. Zergatik?

Baztanen aunitz igo da turismoa azken 10-12 urtetan, turismo ruralaren inguruan. Pentsatu behar dugu orain dela 15 urte baginuen turismoa ez zegoen antolatua eta ez zegoen kontabilizatua. Horregatik ikusten da aunitz igo dela 2000-2001 urte arte eta gero piska bat jo duela beheiti. Faktore aunitz izaten ahal dute influentzia sistema turistiko batean, eguraldia, moda, kompetentzia, kalitatea, prezioa eta jauntsieraren zergaitiak gauza guzti horien artean aurkitu behar ditugu. Dena den, ni optimista naiz baldin eta gogoekin, ardurarekin eta profesionaltasunarekin hartzen badugu turismoa.

Bidaiatzea ere aunitz gustatzen zaizu. Orain Perun zaude, ez da?

Bai, bidaiatzea gustatzen zait batez ere mundua eta munduaren aberastasuna ekologikoa eta kulturala ikusteko aukera ematen duelako, bertze jendeak eta bizimoduak, janariak, abestiak, ohiturak, arazoak eta prozesuak aurrez-aurre bizitzeko.



ARGAZKIAK: ARGIA

Sagar urte ona izan da azkeneko hau. Lekarozko Larraldea sagardotegian, adibidez, 200.000 litro kupeleratu dituzte, gehien gehiena inguru honetan bildutako sagarrekin egina.

Bertako sagarrondoak aztertu eta berreskuratu dituzte Juansenean

Orain baino sagardi gehiago izan ditugu noiznahi inguru honetako mendi mazeletan. Denborarekin, ordea, orduan ugari eta ederrak ziren sagardiak hondatu eta galdu egin dira. Hori ikusita, unibertsitateko irakasleen laguntzarekin, sagar barietate desberdin horiek guztiak bildu, sailkatu eta genetikoki aztertu eta hobetzeko prozesua abiatu zuen 1985-86an Nafarroako ITG erakundeak. Azterketa eta hobekuntza prozesu horren ondorioz, bertako barietateek etorkizuna segurtatua dute.

J. IRIGOIEN

Duela hemezortzi urte hasi zen Nafarroako ITG (Nekazaritzako Teknika eta Kudeaketa Institutua) Nafarroan zeuden sagarrondo desberdin guztiak bildu eta aztertzen. Lehen lehenik Sartagudan duten mindegi batean bildu zituzten barietate desberdinetako landareak eta han bildutako sagarrekin saiatu ziren gero sagardoa egiten. Saiakera harek, ordea, ez zien eman hasieran pentsatua zuten emaitzarik. *"Kontua da bere inguru naturalean ongi ematen duen sagarrondoak ez duela berdin funtzionatzen bertze toki batean, sagarrak duen azido malikoaren tasa desberdina dela, umotzeko behar duen denbora ere desberdina dela..."*

Konparazio batera, berdintsua gertatuko zen Erriberako mahatsondo bat Baztanen jarriko bagenu, hemen

ez luke han ematen duen mahatsik emanen" dio Jesus Angel Garciak, Lekarozko Larraldea sagardotegiko nagusiak. Hori ikusita, Sartagudan egin nahi zituzten esperimenduak Doneztebeko Juansenean hasi ziren egiten, eta geroztik bai lortu dutela selekzio eta hobekuntza prozesuan aitzinera egitea.

Bitartean, orain dela 3-4 urte, bertze 'denbora eta landare galtze' bat gehiago ere izana dute. Garai horretan *su-gorrina* edo *su-bakterianoaren* gaitza zabaldu zen inguru hauetan eta sagarrondo guztiak galdu egin ziren.

Harat-honat guztien ondotik, halere, azkenean lortu dute bilatzen zuten emaitza, eta joan den larrazkenean egin dute lehen aldiz sagardoa Juanseneko sagarrekin. Eta ez hori bakarrik. Nafarroako Sagardogileen Elkartekoek baliatu dituzte dagoene-

INTERREG PROIEKTUA

koz ITGren bitartez lortutako landare eta txertoak euren sagardietan ere.

HAZITIK SORTUTAKO SAGARRONDOAK ETA LANDARE TXERTATUAK

Sagarrondoetan bi zati desberdinu behar dira: airean dagoena eta lurpeko zainak. Hori dela eta, Jesus Angel Garciak azaldu digunez, sagar landare berriak lortzeko, horren arabera bi prozesu segi daitezke: landare berria ereindako sagar hazitik ateratzea, edota txartakari egindako txertaketen bidez lortzea sagarrondo berria. Dena den, lurpeko zatiak aginduko du gero nolakoa izanen den sagarrondoaren egitura, noiz hasiko den fruitua ematen... Juansenean, adibidez, "txertaka estandarrrak" erabili dituzte, bi urtetan fruitua ematen hasi eta berehala ikerketak egiteko egokiak direnak. Larralde sagardotegikoek, bertalde, "M-106 ereduko txertaketa" txertatu dituzte barietate desberdinak, birusik gabeak eta nahikoa estandarrek diren txertakak, azken finean. Orain, hazitik sortutako sagarrondoekin hasi dira sartzan, baina hauek beranduago hasten dira fruitua ematen. Lurra nolakoa den ere ikusi behar da, ez baita berdin erreka bazterreko lur beltza edo mendi mazeletako lur gorria. Bertalde, aldagarri zenbaiten arabera hasi dira probak egiten, "umotzeko behar duten denbora, sagarraren muztioa eta denboran irauteko duen gaitasuna, bertzeak bertze" dio Jesus Angelek.

SAGARDIEN ANTOLAKETA TRADIZIONALA

Sagardorako sagar barietate desberdinak erabiltzen dira. Sagar gaziarekin batera, sagar gezak eta mingotsak ere. Horren arabera antolatu ohi dira betitik sagardiak. "Garbi-garbiakusten da hori sagardi zaharretako distribuzioan. Barietate desberdinak izaten ziren sagardietan" dio Jesussek.

Sagarrondoak aztertu eta genetikoki hobetzeko, mugaz gaindiko proiektua abian da

Europako Batasunak indarrean duen Interreg-III kooperazio proiektuen artean da, "Nafarroa eta Akitania-ko sagarrondoak aztertu eta genetikoki hobetzea" helburu duen proiektua. Nafarroako eta Akitaniako ikerketarako erakunde publikoak eta sagardogileak dira proiektu honen gibeletik dabilzanak. Nafarroako Sagardogileen Elkartearen 5 bazkide biltzen dira: Lekarozko Larraldeakoak, Lekunberrikoak, Aldatzekoak eta Berueteko biak.

AHOLKUA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA

Berez, hiru urtetan luzatuko den proiektua da hauxe, eta ITG-Nekazartza zuzendariak, Benigno Lizar jaunak azaldu digunez, "orokorrean arras pozik" daude egiten ari diren lanarekin. Heldu den hilabetean, martxo erdi aldera edo, elkartzeak dira Akitaniako eta Nafarro-

ako teknikoak proiektuaren segimendua egiteko.

Dena den sagar produktoreei "aholkua eta laguntza teknikoa ematea da" proiektu honetan parte hartzen duten inbestigazio erakunde publikoen egitekoa, eta batez ere bi momentutan; "sagarrondoak osatzekoan, eta gero, sagardoren egite-prozesuan". Azken alderdi honi begiratu, kontsumitzaileen gustuak garrantzi handia du. "Akitanian nahiago dituzte zapora gozoko sagardoak, Nafarroan garratza goak nahiago".



ESKUALDEKO SAGARRAK

Izan, barietate aunitz daude inguru honetan. Batzuk jateko sagarrak dira batez ere, eta bertze batzuk sagardoa egiteko egokiagoak dira. Hona hemen Jesus Angel Garcia, Larralde sagardotegiko nagusiak eman dizkigun izen batzuk:

Amesagar

Anixe

Apesagar

Burdintze

Errekasagar

Eztibeltz

Eztigorri

Eztixuri

Garzabal

Mizpiresagar

Mokatia

Mokotoluze

Udaresagar

Urtesagar

Sagarrondoaren produkzioan klimak agintzen du gehien

Sagardiak hondatu ziren neurrian, sagar gutiago biltzen zen. Horregatik, sagardoa egiteko nahikoa sagarrak ez-eta, pittarra egiten hasi zen jendea. Ez da harrizkoa, hortaz, batez ere sagar gezak ematen dituzten barietateak eta baita altxatzeko onak diren sagarrak (jatekoak) izatea gehien kontserbatu direnak. Arrazoi horregatik ere, sagar mingotsak dira gutien salbatu direnak.

Gaur egun, sagar barietate berdintsuak daude Nafarroa Garaian, Behe Nafarroan, Lapurdin, Zuberoan edota Gipuzkoan. ITGko arduradunari entzunez kontrakoa proposatzen duela ematen badu ere, sagarretan klimak agintzen du, ez politikak. Behar bada toki batetik bertzerat izenak aldatuko dira, baina funtsean barietate berdintsuak dira. Argitu beharreko kontua da, izen desberdineko sagarrak zinez desberdinak diren, edo kasu batzutan ez ote den izena bertzerik aldatzen dena, euskalkia dela-eta.

Berute aldean duten klimaren berezitasunak ez du deus ikustekorik Bidaso aldean dugunarekin. Euri kopuruak desberdinak dira, izotza eta orma desberdin egiten du, hemen larrazken hasieran umotzen den sagarra, altura gehiagoko eremuetan beranduago umotzen da... Hori dena aztertzen ari dira orain. Kontuan hartu behar da Jauntzarats eta Berute aldean hemen baino lehenago galdu zirela sagardotarako sagarrak, baita Ultzama aldean ere.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidente: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena.
Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Konxiki Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Pxtxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senperereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarteak...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Eskerrik asko Koteto

Urtarrilaren 30, Irain Eskola eta Tanturumari-ru Ikastolako haurrak, Batzoki Elkarteak antolatutako pilotari buruzko hitzaldi polit bat gozatzeko aukera izan zuten. Bertan Javier Barriainek pilota modalitate desberdinei buruz hitzegin zien. Ondoren Juan Carlos Oteroren eskutik, bere garain palista izandakoa eta orain pilotagilea, pilota bat nola egiten den ikasi zuten eta ondoren KOTETO EZKURRAREN bisitaldia izan zuten. Ikusmin handia sortu zuen Kotetok eta galdera pila bat egin zizkioten. Benetan ikusgarria izan zen ze jator-tasunarekin eta zein ongi erantzun zien. Mila esker Javier Barriain eta Juan Carlos Oterori bai-

nan bereziki Koteto Ezkurrari profesional ona eta pertsona hobegoa delakoz erakutsi zigulako. Ea Lesakarraren bat zure bideajarratzeraz animatzen den.!

LAURA IGANTZI
Batzoki Elkarteak

EHEk Lesakako herritarrei

Orain gutti Osasun Zentruko administrari lanpostua eta liburuzain plazaren lekualdatzea atera dira.

Nafarroako Euskararen Legeak hauxe dio: «euskara jakitea merezimendu kualifikatuzat hartuko da, bertze batzuen artean». Beraz, Euskararen Legeari «esker» Nafar Gobernuo langilea izateko ez da euskara jakin beharrik.

Hau dela eta, euskarak alemaniera, ingele-
ra eta frantsesak adina balio du, gutti goiti be-
heiti. Hain juxtu, alema-
niera, frantsesa edo in-
gelera jakiteagatik 2 pun-
tu ematen dituzte eta
euskara jakiteagatik, be-
rriz, 2,20 puntu gehie-
nez. Lanpostuak, beraz,
hizkuntza kontuan har-

tu gabe banatzen dira. Honek zer ondorio du? Ba, lasai ederrean gure herrian administrari eta liburuzain erdaldunak topatzea.

Lotsagarri iruditzen zaigu gure herrian, Lesakan, euskara nagusi izanik langile erdaldunak topatzea. Honengatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuak Nafarroan eta beraz, baita gure herrian ere, euskaraz bizi-
tzeko jartzen dituen tra-
bak salatu nahi ditugu. Non gelditzen dira euskararen eskubideak? eta non euskaldunon esku-
bideak? Denon arazoa dugu hau, denok izanzen baikara kaltetuak!

Lesakako
Euskal Herrian
Euskaraz

ESPAINIA	25 €
EUROPA	35 €
AMERIKA	105 €
Baztan, Bertizarana, Urdazubi, Malerreka, Leitza-Areso	20 €
Sara, Senpere, Azkain okinekin	30 €
Sara Herriko Etxeko Edantegian	20 €
Bortziriak, Goizueta eta Arano	DOHAINIK

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Navarra 2003-02-10

«Bertze bi urtez segitzen ahal nuen, baina horretarako gogoak izan behar dira. Konpetizioko kirola, batez ere, egunero entrenatzera ateratzeko duzun gogoaren arabera da. Ikusi nahi baduzu edo ez baduzu, kirola sufrimenduan oinarritzen da, sufritzeko gogoa izan behar duzu, bertzenaz ez duzu deus ere lortuko. Bertze kirolean, teknika onak edo esperientziak gorde dezake ahalmen falta. Txirrindularitza ez».

Juan Carlos GARRO
Berako txirrindularia
D. Navarra 2003-02-10

«Bakarrik jotzeko nahiago dut ostatua eta antzoki batean bada, alderantziz. Izan ere, bandak indar handiagoa du antzokian».

«Musikari berrien harrobi ona da Bera azken boladan, egia da, eta luzaroan hala izatea nahi nuke. Harrobi polita dugu herrian, eta nire ustez, gero eta indartsuagoa izanen da. Erraztasunak badira herrian, eta hori nabari da: lokalak, musika eskola eta abar».

Petti
Berako musikaria
Gaztetxulo 2003-02-07

• 11 GALDERA LABUR •



Daniel SALABERRI Azkaingo zerri hiltzailea

Zonbat urtetan hasi ziñen zerri hiltzen?
Hogoi bat urtetan.

Norekin ikasi zinu?
Lehengo zerri hiltzaile zahar batzuekin ikasi nuen. Zahartuak zirela zioten eta gazteek hasi behar zutela. HOLA hasi nintzen.

Zonbat zerri hil dituzu orotar?
Ez dakit xuxen, azken bi urte hauetan 70 bat urtean.

Orai lehen bezala egiten dire xerrikiak?
Ba berdintsu.

Zonbat pisatzen zuen hil duzun xerriki lodienak?
352 kilo, horrek ematen du 7 kintal eta bi kilo.

Zer da hoberena xerrian?
Xerrian dena da ona, xerriak ez du fitxi galtzeko. Arrunt gutti.

Zoin etxetan egiten da odolkirik hoberena?
Denetan berdintsu, gustu bertsuadute, mulde bertsuan egiten dire.

Zerrek jan behar da odolkia?
Usaian purearekin jaten da. Nik freitua hotza maite dut ere.

Tradizioa hemendatuz doa?
Ez, ttitkituz nik uste, Azkainen beti.

Etorkizuna badu lan horrek?
Ene iduriko, gu izanen gara azkenekoak.

Zure semeak segida hartuko du?
Ez zait iduritzen. Haurra da momentuko. Bainan legeek ez dute utziko.

I CHE
MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA
ZERBITZUAK**
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortziriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404
☎ 900 704704

IZUL

TEL K MISET K ISE K

N HI UZUNK U U. NEU I ET ISEIND ERIN

Ezt r z h T l- F x 3 15 21

BAR Botxo OSTATU

© 948630052•Zalain•BERA

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • **LESAKA**

Z J
Zalain
jatetxea

☎ 948 637 503 • ☎ 948 637 503
Bera • Nafarroa

ARRANTZA - EHIZA

Amoarrain eta izokin arrantza denboraldia martxoaren 16an irekiko da

Kontrapasako usoa, berriz, martxoaren 9a arte ehizatzen ahal da

ttipi-ttapa

Martxoko hirugarren igandean, martxoaren 16an, irekiko da amoarrainen eta izokien arrantza denboraldia Nafarroako erreketan. Joan den urteko araudiarekin parekatuz, aldaketa nabarmen bakarra somatzen da. Aurtentzen, arrantzale bakoitzak eguneko hiru amoarrain arrantzatu ahal izanen ditu bakarrik, joan den urtean baino bat guttiago. Bertze aldetik, ekainean eta uztailean ordu erdi batez luzatuko da izokinak dituzten erreketan arrantza egiteko ordutegia, 22:30ak arte. Honela, martxoan eta apirillean 7:00etatik 21:00etara egiten ahal da arrantza; maiatzean 6:30etatik 22:00etara; ekainean eta uztailean 6:30etatik 22:30etara, abuztuan 7:00etatik 22:00etara eta irailean eta urrian goizeko 7:00etatik 21:00etara.

Bidasoa errekan debekatua dago amuzki naturala jartzea maia-



ARTXIBOKOA

Aitzinetik 75 izokin harrapatzen ez badira, uztailaren 15a arte izanen da aurtengo denboraldia.

tzaren 31 arte; Donezteben Ezkurra errekarren ahotik beheiti, Ezkurra errekan, Zubieta-ko zubitik beheiti eta Ezpelura errekan, Ostizeko zubitik beheiti.

MUGA 75 IZOKINETAN

Izokin arrantzari dagokionez ere, denboraldia martxoaren 16an irekiko da eta hirurogeita

hamabosgarren izokina arrantzatzen den egunean itxiko da. Ingurumen Departamenduak aldeko txostena aurkeztzen badu, ehun izokin ere arrantzatzen ahal dira. Uztailaren 15erako gehieneko kopurura ailegatuko ez balitz, egun horretan itxiko da denboraldia. Egun horietatik kanpo debeka-

tua dago edozein espezie arrantzatzea Doneztebeko San Tiburtzio presatik Enderlatsa bitartean.

Denboraldian, egun guzietan arrantzatzen ahal da, besta egun ez diren asteartetan ezik. 40 zentimetrora ailegatzeko ez diren izokinak urera itzuli beharko dira. Arrantzale bakoitzak

kainabera bakarra eraman ahal du eta bertze norbait esperoan baldin bada, hogeita minutuz bakarrik aritzen ahal da leku berean. Eguneko izokin bakarra arrantzatzen ahal du arrantzale bakoitzak.

Kontrapasa ehiza

Arrantzatik ehizira pasatuz, usoa kontrapasan ehizatze denboraldia otsailaren 9an ireki eta martxoaren 9an itxiko da. Aurtengorako Nafarroa osoan onartu diren 559 postuetan bakarrik egiten ahal da ehiza. Gehienez bi ehiztari egonen dira postu bakoitzean, eta ehiztari bakoitzak eguneko lau uso botatzen ahal ditu gehienez. Denboraldi osoan gehienez 3.000 uso botatzen ahal dira. Nafarroan kontrapasako ehizia onartu zenetik inoiz ez da ailegatu kopuru horretara. 1999an 712 uso bota ziren, 2000. urtean 1.507, 2001ean 1.560 eta 2002an 2.593 uso bota ziren.

LUR-LAN EKABAZIOAK

Mobil: 653 017 967
Tel: 948 630 459

Kuwaitko Auzoa, 3
31762 BERA (Nafarroa)

- Exkabazio lanak orokorrean
- Lur ateratzeak, zanpatzeak...

Dr. Guy Randé
Odontologoa

Kontsultak
Astearte, ortzegun
eta larunbat
arratsaldez

**LARUN
HORTZ
KLINIKA**

Tel: 948 631057 • San Esteban 21 • BERA

LESACA

BERA

Iñude eta artzaien 25. urteurrena beteko da aurten Iñauterietan

Arratsaldeko dantza ere berreskuratuko da

Amaia eta Ainhoa

Iñauteriak otsailaren 27tik aitzinerat ospatuko ditugu Beran. Ortzegun Gizen egunean, haurrek hartuko dute protagonismoa eta goizean goiz hasiko dira etxez etxe «Zingararraultze» eskean. Arratsaldeko 15:30etan haurren Iñudeak eta Artzaiak aterako dira Herriko Etxeko Plazatik eta ttikianak ondoren Eztegarra pilotalekuan elkartuko dira hauekin. 16:30etatik 18:00etara berbena izanen dute Altzateko frontoian Detraka taldearekin.

Kaldereroak ere iñauterietako pertsonai garrantzitsuak dira. Azken urtetan jende gutti ateratzen zenez, ekitaldi hau ez egitekotan egon da baina aurten goan martxoaren 1ean, larunbata, egingen da. Hori bai, berrikuntza batekin: orain arte Illekue-tatik atera eta Herriko Etxeko Plazan akautzen zuten ibilbidea Kaldereroek eta aurten kontrako bidea egingen dute, Herriko Etxeko plazatik abiatu eta Altzateko Plazan akautu. Bertan bikote baten ezkontza ospatu eta baratxuri zopa janez akautuko



Neska-mutikoak Ortzegun Gizen egunean mozorrotuak ibiltzen dira eskean.

ARTXIBOKOA

da eguna. Urtero bezala, abestiaren entsaioak Gure Txokoan egingen dira otsailaren 27 eta 28an, 19:00etan.

IÑUDE ETA ARTZAIK HOGETA BORTZ URTE

Iñudeak eta Artzaiak besta ez da gauza berria. Iñauterietako igandean egiten da, baina aurten ospakizun berezia egingen da 25. urteurrena dela eta. Aurten, 25 urte horietan parte hartu duten guztiak elkartu nahi dira eguna

ospatzeko. Gazteek (edo oraindik sasoiak daudenek), betiko ibilbidea egingen dute eta gainerakoek Dorreatik aitzinerat. Ondoren dantzatu eta konpartsan parte hartu dutenek Zubiondon bazkalduko dute. Baina ez pentsa hor akautuko dutenik eguna. Aurtengoan garai batean egiten zen arratsaldeko dantza berriz ere berreskuratuko denez, 18:00etan atera behar dira berriz ere karrakara. Ondotik, Jalisko

Band taldeak dantzaldia eskainiko du igandeari akabera emateko, 18:30etatik 20:30etara. Astelehena da jendea gehien mozzoratzen den eguna. Herriarrek beraien mozzorroak paratu eta goizean ibiliko dira «Zingararraultze» eskean. Koadrilek normalean bazkaria egiten dute elkarrekin eta arratsaldean Irats taldearekin dantza egiteko aukera izanen dute Altzateko Plazan 18:00etatik afaltzeko tenorea arte.

FLASH

Toki Ona kiroldegia berriz ere martxan

Otsailaren 3tik 9ra bi tarteko astean jendearentzat itxia egon ondotik, berriz ere martxan dago Toki Ona kiroldegia. Lehiaketara atera zuten Udalak herriko kirol instalazioak kudeatzeko zerbitzua eta bi enpresek aurkeztu zuten proposamena. Horien artean, Iruñeko Ur-di enpresak aurkeztutakoa onartu du Udalak eta bera arduratuko da hurrengo bost urtetan kirol instalazioetaz.

Kultur Batzordearen irudia

Berako Kultur Batzordeak bere irudi korporatibo propioa edukitzeko asmoa du. Horretarako, ideia lehiaketa jarri du abian. Lehiaketa honen antolakuntzak ideia onena aukeratu du, baina ez du horrek zertan azken lana izan behar. Irabazlearekin elkarlanean, antolakuntzak egoki deritzon moldaketak planteatu ditu. Lehiaketan nahi duenak parte har dezake, nahi hainbertze lan aurkeztuz. Agiri ofizialetan, gutunetan, posta elektronikotan, zigiluan, eskuprogrametan edo karteletan Kultur Batzordea irudikatzen duen diseinua 500 euroko sari bakarrekin sarituko da. Lanak Udaleko bulegoan martxoaren 10eko 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira.

Alzuri
 Sukalde tresneria eta opariak
 Landare eta loreak
 Telefonoa: 948 630 370
 BERA

ie Iriarte-Echandi, s.l.
 • Aholkularitza
 • Artekiritza
 • Aseguruak
 Kanttonberri | BERA | Tel eta Faxa: 948 631 169

© 948631076 • BERA

LESACA

Ortzegun Gizeneko eskearekin abiatuko dira aurten ere Iñauteak

Igande arratsaldean zakozarrak eta astelehenean karrozak ikusgai

Aitor AROTZENA

Otsaileko azken ortzeguna izanen da aurten Ortzegun Gizen eta urteroko ohiturari eutsiz, «Arraultze, arraultze» eskearekin hasiko dituzte herriko neska-mutikoei iñauteiak.

Lehendabiziko moztorroak martxoaren 1ean, larunbat arratselan ikusiko dira, afal ondoan. Ofizialtasun hitza ez da iñauteiei hobekien egokitzen dena, baina zakozaharrek urteroko ibilbidea osatuko dute igande arratsaldean, musika bandaren laguntzarekin. Beti bezala dantzaldia izanen da plazan.

Astelehen eguerdian lagun koadrila ezberdinen karrozak ikusteko modua izanen da plaza inguruan. Baserriz baserriko lehendabiziko itzulia astelehen goizean eginen dute Fraindarrek, eginkizun hau xintxo betetzen segitzen duen talde bakarrak alegia. Bertzeentzat egun horretan akautuko dira iñauteak, baina Fraindarrak asteartean ere ibiliko dira Izotzaldean eta herrian. Hauekin parte hartzeko lehenbailehen eman behar da izena Koskillan.



ARGAZKIA: PATXI OTEIZA

Pilotari buruzko solasaldi interesgarria antolatu zuen urtarrilaren 30ean Batzoki Elkarteak. Javier Barriainek pilota modalitate desberdinei buruz solastu zien Irain eskolako eta Tantirumairu ikastolako neska-mutikoei. Ondoren, palista izandako eta orain pilotagilea den Juan Carlos Oteroren eskutik, pilota bat nola egiten den ikasi zuten. Koteto Ezkurraren bisita ere izan zuten eta Doneztebeko erremontelariak irrifartsu erantzun zien haurren galderei.

ELKARTEAK

«Herria aintziner» taldea larunbatean aurkeztuko da

Lesakako "Herria aintziner" taldeak bere lehen agerpen publikoa egin zuen otsailaren 8an, Arrano elkartearen egindako prentsaurrekoaren bitartez. Aurkezpen ideiazian agertu zuten, gaur egun, ideia batzuk defendatzeko aukera legez kanpo utzi nahi duten unean, Euskal Herria eta Lesaka herriaren etorkizunarekin kez-

katurik ideia horiek defendatzeko herriko jende multzo batek hainbat bilkuren ondotik Herria Aintziner taldea osatzeko erabakia hartu du. Prentsaurrekoan taldea abiatzeko adostu den testua irakurri eta proiektu ireki honetan parte hartzeko dei zabala egin zuen Herria Aintziner taldeak.

Taldearen aurkezpen ofiziala otsailaren 22an eginen dute, hainbat ekitaldirekin: ikusentzuneakoak, taldearen adierazpena, atxikimenduak...



Jone Fagoaga

Nafarroako Tiro Olinpiko Federazioak iazko tiralari onenei sariak eman dizkio. Jone Fagoaga tiralari onena izendatu dute. Izan ere, Errege Koparen eta Presidente Koparen irabazlea izan zen eta azpitxapeladun izan zen Espainiako Nazioarteko Sari Nagusian, Espainiako txapelketa absolutoan eta Kopan. Munduko txapelketan 13. postuan akautu zuen, Europako txapelketan 5. eta Munduko Kopan 28. Antonio Javier Fagoaga bere aita ere lehendabizikoa izan zen Espainiako txapelketa-ko Skeeteko promozio nazionalen.

Herri Eskolaren ikastaroak

Herri Eskolak sukaldaritza ikastaroa antolatu du, Udalaren eta Nafarroako Emakumearen Institutuaren laguntzaz. Imanol Elizalde, Kasino jatetxeko sukaldariak hamabi astez bi orduko klaseak emanen ditu ortzegunero, otsailaren 27tik maiatzaren 29ra. Otsailaren 22a baino lehen eman behar da izena Izarra okindegian, 20 euro ordainduta. Bertze aldetik, zuhaitzen kimaketa ikasteko bi saio antolatu ditu herri eskolak, Fermin Maritorenaren eskutik. Martxoaren 1ean eta 8an eginen dira bi orduko saioak. Izen ematea otsailaren 28a baino lehen egin behar da Izarra Okindegian (10 €).

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGINA
Tfnoa: 948 637 127
LESACA

ANNA
Janaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
ZAZPI
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

ETXALAR

Ortzegun gizenarekin hasiko dituzte ttikienek iñauteak

Hurrengo astelehenean eta asteartean nagusien txanda izanen da

Joseba eta Nerea

Ailegatu zaigu Etxalarrera ere ganbarako trapu zaharrak astintzeko garaia. Izan ere, iñauteak izanen dira hurrengo egunetan. Heldu den ortzegunean, otsailak 27, Ortzegun Gizona ospatuko dute herriko gazteek. Goizean koadrilatan bildu eta etxez etxe eskean ibiliko dira "urtzaingizen, urtzaingizen, zingararraultze, bat ezpada bertze... biek hobe!" kantatuz, eta etxeetan ematen dizkieten urtatzak bilduz. Arratsaldean, antzerkiak plazaratuko dituzte adin guzietako haurrek. 14:20etatik aitzin, trikitalarien laguntzaz eginen duten kalejiran herri osoa alde bertze pasatuko dute auzo bakoitzean antzerki eta kantuekin geldialdiak eginez. Aurten ikusgai izanen diren antzezlanak hauek dira: Haur hezkuntzakoek "Oilo pottolo", lehen ziklokoek "Gaixo tranpatiak", bigarren zikloko-



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

Gazteak baserriz baserri eskean ibiltzen dira iñauterietako astelehenean.

ek Gabonak ez dira hain onak eta hirugarren ziklokoek "Kolare lapurrak" eta Antsolokuetan dantza bat eskainiko digute: "Paketume tue papa" Eguna berendua eta musikarekin akabatuko dute.

HAUNDIEN IÑAUTEAK

Gaztekoen egun bakarrean ospatzen baldin badituzte ere, nagusiagoek bi egun har-

tzen dituzte iñauteetarako. Martxoaren 3a izanen da lehenbizikoa. Goizeko 9:00etan bilduko dira gazteak Haritzpe ostatuan, eguna gosari ederrarekin hasitako. Ondotik, bi koadrilatan berexiko dira, goiko eta beheko auzotara abiatzeko. Goiza baserriz baserri eskean pasatu ondotik, bazkaria Armitxen eta Santsiñeneko Bordan eginen

dute bigarren urtez segidan. Bazkalondotik, gelditzen diren baserriak bisitatuko dituzte, ilunabarrean herrian elkartu eta Haritzpera afaltzera joateko.

Asteartean, otsailak 4, 12:00etan hasiko dira plaza ingurura hurbiltzen aurtengo organa eta mozorroak. Herriaritzulia eginen diote denak elkarrekin eta Herriko Bordan dira baz-

FLASH

Kinto bazkaria

Etxalarko kinta gehienek iñauterietako egun egiten dute kinto bazkaria. Aurten ere egun horretan, hau da, martxoaren 2an bilduko dira hainbat lagun, elkarrekin kontu zaharrek berritzeko bazkari baten aitzakian.

Dantza ikastaroa

Urtero bezala, urtarrilean Andra Mari dantza taldea lanean hasi da. Alde batetik, dantzari nagusien taldea ortziral ilunabarretan biltzen da Landagain eskolan Mari Cruz Goñi baztandarraren gidaritzapean. Eta irakasle berak hartu du aurten gaztekoen taldearen ardura ere. Horrela, ortziraletan 18:30etatik 20:00ak arte 15 lagun inguru biltzen ditu heldu den abuztuaren 15ean plazan dantzatuko dituzten dantzak erakustera.

kaltzera. Arratsaldean, poteoan ibiliko dira koadrilak eta arratsan Antonion eginen den afariarekin emanen diogu akabilla etxalartarrok 2003ko iñautiei. Asteleheneko eta astearteko otorduetara joan nahi duenak izena eman behar harko duela Elutsa ostatuan 22 baino lehen.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

Lanchas

PARKETAK - TARIKAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRIAK

Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

SAROBEn okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

HERRIKO

IBYATU - JATETZEA

HERRIKO

IGANTZI

Iñauteak ortziral eta larunbat honetan ospatuko dira

Zaragozara bidaia antolatu da

Oskar TXOPERENA

Otsailaren 21a eta 22an izanen dira aurtengo iñauteak. Ortziral arratsaldean Berrizauenen eginen duten eskearekin emanen zaie hasiera eta ondotik aforia izanen dute mozo-roek Biltoki Elkarte-
an. Hurrengo egunean, Iri-sarririk hasita, auzo guzietan eta herriari emanen diete itzulia. Iragarpenik egin ez bada ere, pentsatzekoa da larunbat arratsean show-ren bat prestatu izanen duela urteroko koadrillak.

Haurrei dagokionez, bertzalde, hiru egunetan banatuak izanen dituzte iñauteak: 22an arratsaldeko 4etan bilduko dira mozorrotuta eskola atarian eta ondotik berendua izanen dute. 26an eskolako soinketa lekuan izanen dute mozorro antzerkia eta ondotik Biltokin bazkalduko dute. Azkenik, hurrengo egunean, 27an, Ortzegun Gizen Eguna ospatuko dute

eta eskean ibiliko dira herri guzian barrena eskolan egindako mozo-roekin.

Mus eta partxis txapelketa Biltokin

Otsailaren 8an jokatu ziren Biltoki Elkarte-
an aurtengo neguko mus eta partxis txapelketaren finalak. Partxisean Amalia Sein eta Idoia Bereau ama-alabek irabazi zuten txapela, Virtudes Iguzagirre eta Anuntxi Txoperenari finala irabaziz. Musean, berriz, Mikel eta Joxelu Retegi anaiek Josetxo Arburua Aizalegikoari eta Javier Etxeberriari irabazi behar izan zieten txapela lortzeko. Afare ondotik egin zuten sari banaketa eta, ohikoa den bezala, musika dantzaldia.

Biltokirekin jarraituz, urteko batzar nagusia joan den larunbatean egitekoa zela erranen dugu, baina aldizkariaren egutegiarengatik



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Otsailaren 2an jokatu ziren Arantzan Bortzirietako Banakako Txapelketaren finalak. Igantziko 18 pilotari aritu dira txapelketa jokatzeko eta hiru txapela etorri dira herrira, Adur Yancik, Eneko Telletxeak eta Beñat Txoperenak irabazitakoak. Iker Rojo, berriz, azpitxapeldun gelditu zen finala Eneko Telletxearen aurka galdu ondotik. Argazkian txapelketa jokatu duten igantziko pilotari guziaz ikusten ahal dira finalen egunean, Andoni Taberna eta Iñaki Sein izan ezik.



oraingoz ezinezkoa zigu bertan hartutako erabakien berri ematea. Hurrengoan aipatzeko utzi beharko.

Zaragozara bidaia

Arantza eta Igantziko parrokiek antolatuta Zaragozara bidaia egingen da martxoaren 27an bi herrietako jendeare-

kin. 25etik 29ra egonen da bertan irekia nekazarientzat prestatzen den feria famatua eta aipatutako egunean egin nahi da joan-etorria, goizeko 7ak aldera ateri eta arratsean itzuliz. Bertako sarrera dohainik omen da kooperatibetako partaideentzat. Egun berean ordainduko dute autobusa joaten direnen artean eta otorduak ere norberak ordainduko omen ditu. Joateko asmoa duenak izena martxoaren 1a baino lehen eman behar du 948 634030 telefonora deituz.



Zuhaitzaren Eguna

Otsailaren 10ean ospatu zen Frainen, Ziobira doaien bidearen bazterrean, Zuhaitzaren Eguna. Eguraldi zoragarriak lagunduta, ehun lagunetik goiti bildu ziren bertan, eskolako haur, irakasle eta gurasoak, 60ren bat zuhaitz landatzen. Haur eta irakasleek oinez egin zuten, ohi duten bezala, bertarainoko ibilbidea eta han gurasoekin elkartuta landatzen dituzte zuhaitzak. Lana akaututakoan txartel bana paratzen diote zuhaitzei, haur bakoitzak bereari eman nahi izan dion izenarekin.

Oharra: Oraingo alean ez da "herria ezagutzuz" zutaberik.

JAKONE - GOZOTEGIA

 Altxate, 19•948630786 • BERA

BERRIZAUEN

 Makinaria eraikuntza
 Moldaketak eta despiezea
 Mantenimendu mekanikoa
 Torno, fresadorek, errektifikadorek
 Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

Javier Manterola
 TEKNIKO
 INSTALATZAILEA
 iturgintza • gasa • kalefakzioa
 Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

Alberto RETEGI
 abokatua
 Altxate 17 • BERA • © 948 630 763

J. RAMOS
 zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditut
 Tfnoa: 948 631 342 BERA • Tfnoa: 948 637 172 LESARA

ARANTZA

Ortzegunetik larunbatera ospatuko dira Iñauteak

Nerea ALTZURI

Informazioa xuxen ematen saiatzen gara, baina tarteka hutsak egiten ditugu. Akatsak zuzenduz abiatuko dugu ale honetako herriko kronika. Iñauteak ez ziren joan den aste hondarrean izan aintzineko alean iragarri bezala. Asteburu honetan murgilduko gara mozorro saltsan. Otsailaren 20tik 22ra luzatuko da aurtengo mozorroaldia. Aurten hiru egunez izanen dira iñauteak herrian, lehengo urteetan ez bezala. Iganderik gabeko iñautialdia izanen da, Iñauterietako izpiritu hori bilduagoa delarik aurtengoan betiko edo ohiko osagaiekin. Hogei mozorro xuri baino gehiago lehenengo egunetan baserri eta etxeetan puxka-puxka ibiliko dira soinularien laguntzaz. Herriko lau auzoak eta herri kaxkoa inguratuz eskean ibiliko dira urteroko legez. Eskolako 5. eta 6. mailakoak eta DBH 1go eta 2. mailako neska muti-

lak, ortziralean eta larunbatean ibiliko dira auzo eta herrian barna puxkak biltzen. Ortzegunetan, mozorro helduek eskolara bisita egiten diete, eskolako en eta mozorroen artean giro polita sortuz. Arratsalde, eskolaume eta irakasleek mozorro desfilea egiten dute maila ezberdinetako lagun taldeek mozorro ezberdinak erakutsiz.

Ortzegunetan Burlata jatetxean emakumeek afaria egiten dute. Emakume eta gazte txoen ibilera errepasatuta, mozorro gazteek herriko ostatu eta jate-txeetan txandaka egiten dituzte otorduak. Larunbaterekin bertso afaria izanen da Aterpe jatetxean, aintzineko urteetako igandeko egitaraua, larunbat arratsalde-arrats goizaldera pasatuz.

Bortzirietako pilota txapelketaren finalak

Otsailaren 2an, igande-



ARGAZKIA: ERREUNTENOKO BORDAKOENK UTZIAK

1966ko iñautetan ateriak dira argazki hauek. Ezkerretik eskuinera mozorro xurien izenak hauek dira: Luziano Ordoki, Paxkual Iturria ?????, Anjel Mari Ordoki, Kandido Iturria ???, Josexo Taberna, Euxebio Gonzalez eta Bonifaxio Oskoz. Behean dagoena, Hipolito Agesta.




arekin, Bortzirietako eskuz banakako bigarren pilota txapelketaren finalak jokatu ziren herriko pilotalekuan. Ez zuten nahi bezala gozatu pilotari gaztekoek, frontoiaren pareten eta frontisaren hezetasunaren eraginez, pilota busti eta bote okerrak ematen baitzituen partiduetan. Herriko gaztekoek utzi-

tako emaitzak emanen dizkizuegu: Ander Almandozek 18- 9 irabazi zion Xabier Susperregi lesakarrari; Unai Iparragirrek Beñat Txoperena igantziarrarekin galdu zuen 5-18 galdu zuen. Goizeko partidua borrokatuena eta antolatzaileen aburuz, onenetako bat, losu Larretxea eta Jon Altzuriren

artekoa izan zen, 18-17ko ematzarekin losuren alde; eta Joseba Madariaga eta Imanol Mitxelena arantzarren arteko norgehiagokan, Josebak 18 eta 11 irabazi zion Imanoli.

Finalen ondotik bazkaria izan zuten Aterpen eta elkarrekin arratsalde patxadatsua pasatu zuten.



ALBERGIA JATETXEA
© 948 634179
ARANTZA



ANSONIA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA



SELEZONES UDANE, S. L.

*Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest*

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

OIHANGINTZA

Basoen antolaketa indartzen ari da gure mendietan

Udalek mendien aberastasuna ezagutzeko plangintzak egin dituzte

BASARTEA, S.L.

Duela mende bat baino gehiagotik, oihan-zainek mendien kudeaketarako *Basogintza Antolatzeako Proiektuak* eabiltzen dituzte, errekurso naturalen kudeaketa jasagarria egitea helburu duten dokumentu multzoa.

Araudiaren ikuspegitik, Nafarroako oihan ondarea zaintzeko eta garatzeko 13/90 Legeak zera dio: «*Erabilera publikoko eta babestutako mendiek, Oihangintza Administrazioak, Ingurumen administrazioaren oniritziarekin, onartutako Antolaketa Proiektuak edo Plangintza Teknikoak izan beharko dituzte*».

Kantauri aldean, ikerketa mota honen idazketa bizkortu da, 1996an

Goizuetako Udalak horietako bat egin zuenetik. Herriko mendiek gordezten zuten balioa ezagutu eta epe laburrean beharrezkoak ziren ekintzak planifikatzea zen Goizuetako Udalen helburua.

Geroztikan, Bera, Lesaka, Etxalar, Arantza, Bidasoa-Berroaran eta Kokoriko Mendien Junta, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Donamaria, Beintza-Labaien, Urrotz, Saldias, Leitza eta Aresoko herri lurren antolaketarako proiektuak sustatu ditu Nafarroako Gobernu-ko Ingurumen Departamenduko Mendi Sailak.

EDUKIA ETA HELBURUAK

Mendien antolaketak, orokorrean, bi fase ditu: inbentarioa eta

plangintza.

Inbentarioan, ikeritzen den mendia sakonean ezagutu nahi da. Horretarako, bertan bizi diren oihan espezieak identifikatzen dira eta bertan dauden produktuen kopurua eta kalitatea, mendiaren aberastasuna eta egoera, azpiegituren egoera (basoko pistak, itxidurak...), kudeaketarako garrantzitsuak diren bertze osagai garrantzitsuen egoera, ehizirako postuak edo aztarna arkeologikoak adibidez, edo ingurumen arazoengatik bereziki sentiberak diren eremuak neuritzen dira.

Planifikazioan, mendiaren murrizketak eta potentzialtasunak aztertzen dira. Lehenbizikoan artean, orografia-



ARTXIBOKOA

Mendien antolaketarako inbentarioan, ikeritzen den mendia sakonean ezagutu nahi da: espezieak identifikatu, mendiaren eta azpiegituren egoera zehaztu, ehizi postuak edo aztarna arkeologikoak...

zaila edo bide falta duede, bertzeen artean. Mendi baten potentzial-

tasunak dira terrenoen kalidade ona, nahiz eta kalidade komertzial tx-

Navarpro III
Materiales de Protección Forestal

TUBOAK
ZIRI GIDARIAK

GAZTAIN
PIKETEA

HESIETAKO
SAREAK

LORATEGI ETA
ZERRAKURA
MATERIALAK

Eslava Karrika, 15
☎ 607 842 709 ☎ 610 836 534
31320 MILAGRO
(Nafarroa)

Lorzaintza

JOHN TELLETXEA MAYO
NEKAZARITZAKO INGENIARI TEKNIKOA
Bittiria 4, 2. esk. • Lesaka • Tel. 948 627561

ALZUBA MENDI LEN - ESBERTZIOA
Tel./Fax: 948 450 504
Móvil: 659 867 387
SALBILLA - NAFARRA

**ZUBIRIA
MINDEGIAK**

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)
Faxa: 948 581274

**Ituzia
lorzaintza**

© 666 407214 • 948 631199 • BERA
© 627 426724 • 943 640798 • Hondarribia



ARTXIBOKOA

Plan Bereziak noiz, non eta nola moztu behar den zehazten du, baita garbitze edo kimaketa tratamenduak ere.

rrako zuhaitzekin estalia egon momentu horretan, bide sare ona edukitzea edo komunikabide handien hurbiltasuna. Modu berean, oihan eta abeltzain erabileren arteko bateragarritasuna aztertzen da.

Mendiko zuhaitz espezie ezberdinen maneirako kudeaketa irizpide ezberdinak osatzen

dira epe ertain eta luze-erako eraginarekin (Plangintza Orokorra) eta hurrengo hamar urterako ekimen premiak erabakitzen dira (Plan Berezia).

Plan Bereziaren alderdi garrantzitsuenetako batek noiz, non eta nola moztu behar den zehazten du, baita lortu nahi den zuraren kalitatea eta diru-sarrerak.

Gastuetan, oihanberritze lanak, tratamenduak (garbitzea, kimaketa...), bideen hobetzea eta gisakoak neurtzen dira.

Hamar urteak igarotakoan, antolaketa proiektua berriro aztertu beharko da, berriz ere inbentarioa eginez, eta hurrengo hamar urtetan egin beharreko ekitaldien planifikazioa pres-tatuz. ■

BEKO

Lore eta landareak

Udaberria gainean dugu eta Zure landareak hemen ditugu

Erain Auzoa • 48300 • Tel. 948 037828

ENDANEA MINTEGIAK INGURUKO LORE MINTEGIRIK EDERRENA

Orain fruitondo txertatuak aukeran, 60 mota ezberdin: Sagarrak (jatekoak eta sagardokoak), udareak, gereziak, muxikak, briñoiak, kiwiak...

Fruitondoak neguan zaintzeko xomoroen aurkako produktuak

Eta loretan aukera ezin hobea, neguko kanpokoak, etxebarrukoak eta bere osagarri guzietan: lurrak, tiestoak, riegoak, botikak, ongarri bereziak

OPARIAK: Zentroak, lore sortak etxera, lantegira, ospitalera... eramaten dira telefonoz eskaera eginda.

LORE DETAILA BATEKIN ONGI GELDITUKO ZARA

Ordutegia: Jai egunetan 9:00-13:30

Astelehenetik larunbatera 9:00-13:30, 15:30-20:00



Zatoz loreak ikustera, gustura aterako zara



Arkoll Auzoa
HONDARRIBIA
© 943 641710

www.endanea.com

DONEZTEBE

Kirol eta kultur ekitaldietarako dirulaguntzak eman ditu Udalak

Iñauteriak otsailaren 28tik martxoaren 2ra ospatuko dira

ttipi-ttapa

Joan den urteko kirol eta kultur ekitaldietarako dirulaguntza eman du Doneztebeko Udalak. 1992an onartutako ordenantzaren arabera, gastuen %32,4 ordaintzen du Udalak, hirutik bat eskas. Honela, Laxoa Elkarateak 2.903 euroko gastua aurkeztu zuen eta 940,57 euroko dirulaguntza izanen du; Txaruta pilota elkarateak 3.957 euroko aurrekontua aurkeztu zuen eta 1.282 euro jasoko ditu eta Erreka Elkarateak 16.326 euroko gastuetatik 5.289,62 euro jasoko ditu Udaletik.

Bertze aldetik, kultur taldeek ere jasoko dituzte iazko ekitaldiengatik Udalak banatzen dituen dirulaguntzak. Hauek ere, ordenantza berarekin arautzen dira. Mendi Abesbatzak 1.803 euro jasoko diru, dantza taldeak 601,01 euro eta Ezpelura Emakumeen Elkarateak 601,01 euro.



Argazkia: Foto Zaldúa

Joan den urteko karrozen desfilean eskoziar talde hau ikusi ahal izan zen.

IÑAUTERIAK

Otsailaren 28tik martxoaren 2ra ospatuko da mozerro besta

Otsaileko azken egunean hasiko dira Doneztebeko hauretagazteak iñauteri bestetan. Goizean gosaldutik, trikitalarien laguntzaz baserrietako ibilbidea eginen dute gazteek.

Herrian gelditzen direnak, eskolako haurrek egiten duten mozerro desfilea ikusi ahal izanen dute. Arratsalde, berriz ere, baserri ibiliko dira gazteak. Larunbat arratsal-

deko 4ak aldea, jendeak ongi bazkaldu ondoren, ateratzen dira karrozak Donezteben. Ondotik, ikuskizunen bat prestatzen du koadrila batek: duela bi urte rodoea, iaz miss aukeraketa... aurten zer? Ilandeko bazkariarekin akituko dira iñauteak.

FLASH

Errepide moldatzea

Ameztia zeharbidea eta Merkatuko Bidea moldatzea eskatu dio Doneztebeko Udalak Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamentuari. Ameztian, Doneztebe eta Saldias arteko errepidean hainbat zulo daude eta Merkatuko Bidean, berriz, isuribideetako tapak aldatzea eskatu da.

Herriguneko isunak ez ditu Udalak tramitatu nahi

Guardiazibilak eta polizia foralak herrigunean jartzen dituen isunak Herriko Etxearen bitartez ez tramitatzeko gestioak egiten hastea erabaki du Udalak. Horretarako, Nafarroako Trafikoko Buruzagitzara jo du, alkateak utzi eta berak hartzeko ardura hori.

Moldaketa lanak Osasun Zentroan

Osasunbideak Doneztebeko Osasun Zentroko artxiboa eta administrazioa moldatzeko lanak egiteko baimena eskatu zuen. Herriko Etxeak lizentzia eman eta lanean hasi ziren urtarilean. Sei hilabeteko epea dute akitzeko.

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

616 513 497

Pititi
ESKABAZIOAK

(Anaitia)
33700 DONEZTEBE (NAFARRA)

LANA

Urtarrilean langabeziak nabarmen goiti egin zuen eskualdean



Doneztebeko INEMen 692 lagunek izena emana zuten

ttipi-ttapa


Urtarrila egitan hila-bete beltza izan da lanari dagokionez gure eskualdean. Izan ere, 692 lagunek emana zuten izena Doneztebeko INEMen, joan den urteko abenduan baino 113 gehiagok. Nafarroan ere goiti egin du langabeziak, 789 lagun gehiago baitaude lanik gabe, 19.589 guzira. Populazio aktiboaren %7,68 lanik gabe dago, beraz, Nafarroan.

Langabetuen adinari dagokionez, eskualdean 25 urtez beheitiko 71 gizaseme eta 51 emakume eta 25 urtez goitiko 238 gizon eta 332 emakume zeuden langabezian abenduan. Beraz, adin eta sexu sektore guzietan nabarmen goiti egin du langabeziak.

Lan sektoreka, zerbitzu arloan zeuden langabetu gehienak, 389 pertsona (330 abenduan), industrian 213 (165 abenduan), erai-kuntzan 44 (abenduan bezala) eta nekazaritzan 7 (4 abenduan), aitzinetik lanik egin gabeko 39 langabetuekin batera (36 abenduan).

Urtarrilean 599 kontratu berri egin ziren eskualdean, bai, abenduko 252ak baino dextente gehiago, baina horietatik 47 bertzerik ez ziren mugagabeak izan, %8a eskas.

EZ EN IK KEN U ZU E L N UEI
ur | Kutx k n n u C sk r zur tk



Lan sektoreka, zerbitzu arloan zeuden langabetu gehienak, 389 pertsona (330 abenduan), industrian 213 (165 abenduan), erai-kuntzan 44 (abenduan bezala) eta nekazaritzan 7 (4 abenduan), aitzinetik lanik egin gabeko 39 langabetuekin batera (36 abenduan).

NAFARRAK
RURAL KUTXA

MALERREKA

Haurtzaindegiaren bideragarritasuna aztertzen ari da Mankomunitatea

Hiru urte arteko seme-alabak dituztenei inkesta igorri zaie

tipi-ttapa

Malerrekan hiru urte bitarteko seme-alabak dituztenei inkesta igorri die Malerrekako Mankomunitateak, haurtzaindegi baten bideragarritasuna eta aukerak ezagutzeko. Gainera, Cofes-Haizeari ere laguntza eskatu zaio, haurdun daudenek ere bete dezaten. Haurrak zentru honetara eramateko nahia eta zerbitzu honengatik ordainduko kuota ezagutu nahi ditu Mankomunitateak. Dena den, inkesta beraien etxetan jasotzen ez dutenei, Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte

Zerbitzutik pasatzen ahal direla jakinarazi dute, Gizarte Langileak informazioa eman eta familiei bidalitako inkesta emateko.

GARAPEN AGENTZIAREN EKIMENA

Urteak dira Malerreka, Bortzirriak eta Bertizaranako Garapen Agentziak zonalde hauetako udaletarako lan egiten duela eta eragile pribatuei aholkularitza eta laguntza eman negozio berriak sortzeko. Ekimen hauetako bat Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko zentru bat Malerrekan paratzeko aukerarena izan da, le-



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Birziklapena aurrera eramateko iglootan bota behar da Gaur egun, Malerrekako Mankomunitateak zenbait hondakin solido kudeatzen ditu: beira-kristala (igloo berdeak), papera (igloo urdina), enbaseak (igloo horia), neurri handiko trasteak (Mankomunitatera deituz, Traperoskoek biltzen dituzte) edo hondakin orokorrak (birziklatu ezin direnak). Edukiontzia ezberdinen erabileran gaizki ulertuak izan dira eta horregatik, Mankomunitateak jakinarazi dutenez, «birziklapena aurrera eramateko nahitaezkoa da iglootan sartzea, ez kontenedoretan, nahiz berdea nahiz urdina izan». Bere zerbitzua zenbait kasutan nahiko murrizta dela onartzen du Mankomunitateak. Adibidez, kartoia biltzeko ez zaie dendei zerbitzu zuzena eskaintzen, edo pilak jasotzeko ontzirik ez da momentuz, baina denen artean Malerreka garbiagoa lortzen ahal dela uste du Mankomunitateak.

hendik Bortzirietan erelanda zena.

Ekimen hau eta zerbitzu hauen eskaerak kontutan hartuz, Garapen Agentziak, Manko-

munitateko Gizarte Langile eta Presidentearekin batera, zentro hauek arautzen dituen Foru Dekretua aztertu zuen (Dekretuak ez du orain-

dik ere behin-behineko onarpenik) eta ikerketa bat egitea erabaki zuen, bideragarritasuna eta garapen aukerak ezagutzeko.

 **Rafa**
600 819 640
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

Zure publizitatea
ttipi-ttapan
948 63 11 88

ARTEKARI
TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9etatik 13etara eta 15etatik 19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxes: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak


BORTZIRI
UNISION ANAIAK
sukalderako altzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxes: 948 637 266

TURISMOA

Nafarroako Landa alojamentuen eskaintza gida batean bildu da

Sektore honi buruzko informazio falta moldatu nahi du

ttipi-ttapa

Nafarroako Landa Alojamentuen Gidaliburua argitara eman zuen otsailaren 11n Iruñean, Nafarroako Turismo Elkarte eta Erakundearen Federazioak. Nafarroan dauden 450 establezimendu turistikoetatik 240en informazioa eskaintzen du gida honek, turismo alternatibo honen inguruan dagoen «informazio falta» moldatzeko asmoarekin.


Bertze urteekin konparatuz, gida berriak telefono zenbaki bat (902 196462) eskaintzen

du, zalantza eta kontsulta guztiak argitzeko eta erreserbak zentralizatzeko. Teknologia berrietara egokituz, gisako zerbitzua eskainiko da helbide elektronikoa honetan ere: info@turismoruralnavarra.com

NAFARROAKO GOBERNUAREN LAGUNTZARIK EZ

Sektore honen eta Nafarroako Gobernuaren arteko ez-baiak agerian gelditu ziren gidaren aurkezpenean. Nafarroako Turismo Elkarte eta Erakundearen Federazioko presi-

denteak, Sagrario Goñi bertarrak erran zuenez, «Turismo Departamentutik borondate ona bertzerik ez dugu jaso, baina horrek ez du aunitz balio dirulaguntza behar denean». Izan ere, gida hau egitearen beharra agertu ziotenean Departamentuari, Iruñetik ez zuten erantzunik jaso. Ondorioz, sektore honetako elkarte ezberdinak biltzen hasi ziren argitalpen hau gauzatzeko, «inolako dirulaguntzarik gabe eta gure dirua paratuta». Cederna-Garalur erakundearen «etikarik ga-



«Nafarroako landa alojamentuak» gidaliburuaren azala.

beko» jarrera ere salatu zuen Sagrario Goñik: «Ez dute dirulaguntzarik eman, baina horretaz gain, gure eskariari ez zioten erantzunik ere eman».

SAN FRANCISCO JAVIER Ikastetxe Publikoa



cpelizon@pnte.cfnavarra.es

• ELIZONDO •

☎ eta Faxa: 948 581 808



Matrikulatzeko epea: Otsailaren 17tik 28ra

ESKOLA PUBLIKOA AURRERANTZ!

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza DBH

Lanbide Heziketan eskaintza ZABALA

Batxilergoetan eskaintza OSOA

LEKAROZ: ➤ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

➤ **LOGSE BATXILERGOA I eta II**

- Natur eta Osasun Zientziak / Injinerutza Ibilbidea
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Teknologia

➤ **Erdi Mailako Heziketa Zikloa**

- Iharduera Fisikoak eta Kirol Iharduerak
- Ingurune Naturelean Gidatzea

ELIZONDO: ➤ Lanbide Heziketa Egokitua

➤ **Lanbide Sarrerako Programa Berezia**
Bizitza Heldu eta Aktibora igarotzea

➤ **Lanbide Sarrerako Programak**

- Bulego eta Saltetxe Txikirako Laguntzailea
- Soldadura eta Galdaragintza Laguntzailea

➤ **Erdi Mailako Heziketa Zikloa**

- Kudeaketa Administratiboa
- Mekanizazioa

➤ **Goi Mailako Heziketa Zikloa**

- Administrazioa eta Finantzak



INSTALAZIOAK

- ◆ **5 Laborategi:** Fisika, Kimika, Biologia, Geologia.
- ◆ **5 Informatika gela:** Multimedia, sarea, Autocad, Internet
- ◆ **3 Marrazketa gela**
- ◆ **2 Teknologia gela**
- ◆ **Gizarte tailerra**
- ◆ **7 Ikusentzuteko gela**
- ◆ **2 Liburutegi:** 20.000 ale
- ◆ **Tailerrak:** soldadura, pneumatika-hidraulika, kontrol numerikoa, fabrikazio mekanikoa, bizikleta,...
- ◆ **Kirol Instalazioak:** kiroldegia, frontoia, 2 gimnasio, atletismo pista, futbol zelaiak, kanpoko pistak, zalditegia,...
- ◆ **Jangela: DBHko** 1. ziklokoentzat.
- ◆ **Garraio Zerbitzua:** Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortziriak.



I.E.S. LEKAROZ ELIZONDO B.H.I. Bigarren Hezkuntza Institutua



LEKAROZ

Uharte auzoa, z/g
31795 LEKAROZ (Baztan)
☎ 948 58 18 03
☎ 948 58 18 36
✉ Posta Elektronikoa
ieslekar@pnte.cfnavarra.es

ELIZONDO

Diputazio Etorbidea, z/g
31700 ELIZONDO (Baztan)
☎ 948 58 18 05
☎ 948 58 18 40
✉ Posta Elektronikoa
ieselizo@pnte.cfnavarra.es

Izen ematea:

- ◆ **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:** 2003ko otsailaren 17tik 28ra
- ◆ **Batxilergoa eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa** 2003ko apirilaren 28tik maiatzaren 9ra
- ◆ **Goi Mailako Lanbide Heziketa** 2003ko ekainaren 2tik 10era

OHARRA.- Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte gurekin kontaktuan.

ARANO

Iñauteriak igande honetan ospatuko dira

Goizean Suron hasiko dira zomorroak puska biltzen

Kontxi KLABER

Aurten urtero beza-la iñauteri garaia heldu zaigu eta hemen Aranon betiko moduan aurreratu egingo dira aste betez, otsailak 23an igandearekin ospatuko baitira.

Ohitura zaharrari eutsiz goizean Surotik ha-

siko dira zomorroak puska biltzen gero Arranbide, Bentaberri, Beheko herri eta azkena herria pasatuko dute etxez etxe trikitiarekin alaituz eta fandango eta arinarin dantzatzuz.

Bazkal ondorean neska eta mutilez osatutako koadrila onek za-



Argazkia: Kontxi

Mozorroek herrian bukatuko dute auzoz auzo eta etxez etxe igandean egingo duten eskea.

gi dantza eskeiniko dute eta festa bukatzeko iluntzean kantu afaria elkartean nahi duen guzientzat.

Mendi landatzea

Bi hilabete inguru izango dira Arano mendia eta inguruak itxi eta zulatzen hasi zirela, ha-

mar hektarea dira guztira landatzekoak baina oraindik lan handiak geratzen dira hau bukatuta ikusteko.

BAZTAN IKASTOLA Udal Eskola Publikoa



FOTO MENA



BAZTAN BALLEKO UDALA

ESKUARAZ BIZI ETA IKASI

Aurreinskripzioa: Otsailaren 17tik 28ra

© 948 452 448
baztan@ikastola.net

GOIZUETA

Martxoaren 2, 3, 4 eta 8an ospatuko dira aurtengo iñoteak

«Basauntz»ek antolatutako festari erantzun ona eman zioten ehiztariek

Esteban AROTZENA

Ezin da esan aurtengo iñoteetako deus berririk antolatu denik, baina beti bezalakoak izanen direla ziurtatua dago, beraz, lau egunean festa giroa nagusituko da herrian.

Martxoaren 2, 3, 4 eta 8rako mozorroen taldeak prestatu duen programaren arabera, lehenengo egunean, igandean alegia, 11:00etatik aurrera Leitzako eta Goizuetako pilota eskolakoek hainbat partida jokatu dituzte, bi herrietako pilotari, entrenatzaile eta gurasoen harremanak estuzteko balio duen ohitu-

rarekin segituz. 17:00etan, berriz, gaztetxoek zahar-dantza hasiko da, eta 19:30etatik 21:30etara dantzaldia izanen da Leire eta Itxaso trikitalariek.

Astelehenean, mozorroen koadrila baserri dabilen bitartean, beste herritar batzuk egiten dira kaletako nagusi. Horrela, 17:00etan aterako da Guraso Elkarteak antolatu eta gaztetxoek eta aerobic-eko emakumeek osatuko duten konpartsa. Eta desfilea bukatu orduko, guztiei txokolata emanen zaie. Mozorroak herriratzerako dultzaineroen txar-



ARTXIBOKOA

Orain dela 18 urteko mozorroen taldea.

ranga zain egonen da poteo musikatu burutu asmoz. Gaueko dantzaldiaren ardurua Leire eta Itxasoren esku egonen da. Asteartean, betikoari eutsiko zaio, hau da, 10:00etatik aurrera mozorroen eskea eta 17:00etan herrian berrera zahar-dantza. Hau bukatutakoan, mozorro ezberdinez jantziko dira kale eta tabernak, horrelaxe agintzen baitu ohiturak. Ilunabarrean eta gauean, Trakets tal-

deak joko du plazan. Sekula guzian asteartea izan da Goizuetako iñoteetako egun nagusia, baina gizartearen aldaketak direla medio edo, azken urteotan ondorengo larunbatak protagonismo berezia hartu du. Egundorretan biltzen da mozorroen taldea kontuak egitera, eta ondorengo festa ikaragarria izaten da. Aurten Iruñeko «Ilgandea» txarangak joko du ilunabarretik goizalderaino.

Ehiztarien festa

40 ehiztarik parte hartu zuten Basauntz elkar-eteak otsailaren 8an antolatutako festan. Espideko sorozan goizean askatutako uso, faisai eta eperrek pasada ederra hartu zuten eguerdirako. Forma onean ailegatu dira, beraz, ehiztariak denboraldiaren bukarara. Umore Ona elkar-eteo bazkariarekin eta mus txapelketarekin bukatu zen festa honen lehen edizio hau.

ARESO

Eguraldi kaxkarrari aurre egin zaio aurten karnabaletan

Otsailaren lehendabiziko asteburuan ospatu ziren

Juana Mari SAIZAR

Urte hasieran eta ohi-turari jarraituz, karnabalak otsailaren lehendabiziko asteburuan ospatu dira. Eguraldi kaxkar eta txarra ez da inongo oztopoa izan eta betiko pusken eskean, bai herrian baita baserrietan ere ibili dira. Dantzaldia Behoko Trinke-tean eta afariak, umorean bero-bero joan di-



JUANA MARI

ra, eguraldiari kontra eginenez. Karroza bat ere ateratu zen, herria alaitzeko.

Etxebizitzak egiten hasi dira, urbanizazio lanak egiten ondotik.



ARGAZKIA: JUANA MARI

Euskadiko txapelketarako aukeratuak izan ziren Maitane eta Uxue, igerilari osoaren txapelketaren finalean parte hartzeko. Gasteizen, Mendizorroza kiroldegian izan zen finala.

Karate ikastaroa

Guraso Elkarteak karate ikastaroa martxan ja-

rritu du. Leitzako kiroldegira joaten dira astearte eta ostegunetan ordubeteko saioa egitera.

LEITZA

Liburutegia ezagutuz

14.000 liburu eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditu

Mikel ILLARREGI

Oraindik «Liburuaren Eguna» ez da, noski, hau apirilaren 23an izanen baita. Hala ere, egun horretan urtero aipatzen da liburuaz eta liburutegiaz ez dela egun horretan bakarrik gogoratu behar. Hone-tarako liburutegiko arduraduna den Jose Luis Huarterengana hurbil-du gara, hainbat datu jakin nahian.

Aspaldidanik dugu liburutegia herrian. Hasieran Patronato Amabalek kudeatzen zuen (1969), baina hau desegin zenean, Diputazioak udalarekin hitzarmena sinatu zuen. Honen lokalak jarri zuen eta mantenimenduaz arduratu zen. Modu honetan oposaketan bitartez langile bat hartu zen 1984ean eta 1995ean, egun betetzen duen tokian

egin ziren azkeneko obra garrantzitsuenak.

Lokalari dagokionez, oso egokia dela iruditzen zaio arduradunari, nahiz eta «urruti xamar» egon. Gaur egun 800 bat bazkide ditu liburutegiak. Azkeneko datuen arabera (2000. urtea) 10.376 pertsona etorri ziren lanak egitera, libururen bat hartzera, kontsultaren bat egitera... Urte berean ia 4.000 liburu hartu ziren etxera eramateko. Guztira 14.000 liburu ditu liburutegiak eta hauek, gaiaz eta idazlearen arabera antolatuta daude. Gehien joaten direnak ikasleak dira eskolako lanak egitera, baita larriak ere maileguak hartzera.

Honetaz gain, bideoak, CD-rom batzuk eta Internet pare bat. Orain-txe jakin dugunez, In-



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Eskolako neska-mutikoak dira liburutegia gehien erabiltzen dutenak.

terneten zerbitzua datorren astetik aurrera dohain izanen da. Beraz, erabiltzaileak izanen du honen erabilera, ezarrita dagoen araudiaren arabera.

Zenbaitetan, Euskara Zerbitzua eta kultur taldearekin ekitaldiren bat edo beste antolatzen dute; liburuaren aurkezpenak, ipuin kontaketa... Aurten bost idazle ekartzeko asmoa dute eta laster izanen da lehendabizikoa.

Orain, 15:00etatik 21:00etara dago zabalik eta beste orduetan zabalik egotea nahiko lu-ke, baina horretarako beste langile bat hartu beharko luke Nafarroako Gobernuak. Egun, ordezkapena egiteko pertsonariek dago. Dena den, bere iritziz, instituzioek garrantzi handiagoa emanen baliote liburutegiari, liburutegietan «inbertitzea» errentagarria dela alegia, bultzada handiagoa

lortuko litzateke eta honen batera guztion liburuakiko kontzientzia benetan sortu.

Beste belaunaldiren bat beharo da zaletasuna bermatzeko, jendeak oraindik ez baita irakurriz ere goza daitekeela. Azken finean; merezi duela.

Kinto afaria

1957an sortutako kintoek afaria egiten dute otsailaren 22an Muzunzarren.

MENDIA

Mendi Astea otsailaren 20tik 23ra antolatu du Mendibil taldeak

• Otsailaren 20a, osteguna, Eneko Pou-ren eskalada proiektzioa, 19:30etan zineman.

• Otsailaren 21a, ostirala, Juan Mari Ansaren Adarra-Mandoegi, 19:30etan zineman.

• Otsailaren 22a, larunbata, ume eta gazteen irteera, goizeko 9:00etan plazatik.

• Otsailaren 23a, igandea, helduentzat mendi irteera Valderejora (Araba), 8:00etan plazatik.

Honetaz gain, gogorarazi Kiroldegian, argazki lehiaketako argazkiak daudela eta ikusteaz gain bakoitzak puntuatu dezakela hor-txe bertan edo irratian.



Txistua jotzearen ohitura oso aspaldikoa dugu Leitza. XVIII. mendean aipamenak aurki daitezke. Plazan jotzearen ohitura ere aspaldikoa da eta salbuespenak sabuespen aurreko mende osoan eta baita aurrekoan ere gertatzen zela esan daiteke. Horrela, igandero-igandero hiruzpalau lagun karrapeko ixkin batean, txistularien txokoa alegia, biltzen dira eta ordu pare batez (18:00etatik 20:00etara) ekiten diote txistu eta danbor jotzeari. Aipagarria da, duela hilabete gutxi Fermin Azpirozek, azkeneko 50 urte hauetan –gutxienez– karrapen igandero egiten zuten tanbor jotze saioari utzi egin diola. Beraz, eskerrak lerrotxo hauen bitartez.

ZUGARRAMURDI

Urtarrileko elurteak bete-betean harrapatu zuen herria

Akelarre elkarteak 850 euroko dirulaguntza eman dio ttipi-ttapari

Margari eta Koro

Urtarrilako elurteak bete-betean harrapatu zuen herria. Zugarramurdi ez da toki altu batean kokatua (206 metroan dago) eta itsasoko epeltasuna zuzenean sartzen zaio tartean mendirik ez dagoelako; horrengatik arraroa da elurrak arazoak sortzea. Bainan aldi huntan bai: urtarrilaren 31ko goizean txuri-txuri egina ernatu zen herria, komedia franko izan ziren beitiako karrikatik edo lapizgetitik plazara igateko, eta gauza bera plazatik basaburuara aldera abiatzeko. Goiz hortan ere haurrak eskolara gan gabe gelditu behar izan zuten, al-

de batetik autobusa ezin izan zelako pastu eta bertetik bi herriak argindarrak gabe gelditu zirelako eguardiarre, eta argindarraren faltan kalefakziorik ez zegoelako. Egun hoietako kalterek ere kalteak sortu zituzten telebistako antena zenbaitzutan eta etxe frankotan arazoak izan dituzte telebista ikusteko.

Janarien bankua

Gan den urtean egin zen bezalaxe, aurtan ere Urdazubi eta Zugarramurdiko elizetan janari bilketa eginen da. "Nafarroako Janarien Bankuak" antolatzen du bilketa hau herriz-herri eta



1991 urteko inauteriak dira eta gaur egun bezalaxe, orduan ere gela ginuen aipamen. Ordukoa Golfoko gerla zen, oraingoaren gisan ere **Sadam Husseinene kontra, eta orduko inauterietan gazteek argi eta garbi erakutsi zuten: Gerlarik ez. Aldi huntan ere segur gaude gauza bera adieraziko dutela.**



ondotik bildu dena Nafarroan behartuak diren familien artean banatzen dute. Bilketa Martxoaren lehenbiziko hamabortzaldian eginen da, eta elizetan espreski emanen den kutxa haundi batetan utzi behar dira janariak. Kontutan hartu behar da galtzen ez diren janariak izan behar direla.

Akelarre elkarteak ditulaguntza ttipi-ttapari

Akelarre elkarteak bere gain hartu du bertze urte batez, TTIPI-TTAPA aldizkaria hamabortzere Zugarramurdin banatzeko gastua. Aurtan, 850 euro ordaindu ditu eta, honela, herriko 67 harpidedunek aldizka-

ria dohainik hartzen segituko dute.

Iñauteriak

Martxoaren 2 eta 3an Iñauteriak ospatuko dira. Gan den urtean egin zen murrizketa bera izanen dugu aurtan ere: igande eta astelehenean bakarrik ospatuko baitira, eta asteartean xintxo-xintxo lanera.

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516



Kantonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa



Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak
Angeluk
Orma antzinak
Leioak
Ateak
Arkuak
Pilareak

Tximiniak
Erlaizak
Moldurak
Zokaloak
Hilarriak
Marrazkiak

'Abujardada' Mazzoa
Zuhar antzekoa Txapeletia

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



BELARRA

OSTATUA
JATETXEA

Amezia karrika
DONEZTEBE
Tfnoc: 948 45 03 06



Iturlandeta, 6 • © 948 63 02 40 • BERA

DROGUERIA
MOLINERO

DROGERIA
LURRINDEGIA
OPARIAK

2.000 kolore

baino gehiago lortzen ahal duen makina

10 minututan

zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat
prezio berezia

BAZTAN

Baztandarra Kooperatibak «Baztangoa» izenarekin salduko ditu bere produktuak

Herriko izena babesteko eskaria egin diote abeltzain eta harakinek Udalari

ttipi-ttapa

Baztango 300 nekazari biltzen dituen Baztandarra Kooperatibak bere produktu guztiak, aretze eta zerri haragia eta esnekiak batez ere, «Baztangoa» izenarekin komertzializatzea erabaki du. Horretarako, lehendabiziko eskaria egin diote Balleko Udalari, erakunde honek baitu Baztan izena erregistraturik. urtarrilaren 24an egindako Gobernu Batzordean oniritzia eman zion Udalak kooperatibaren eskeariari. Federico Etxenike, kooperatibako presidentearen ustez, erabaki hau garrantzitsua da: «lehen Baztango Aretxea izenarekin haragia saltzen zen, baina ez genekien nondik heldu zen». Beraz, komertzializatzeko orduan iruzurrik ez gertatzea nahi dute eta kontsumitzaileek garantia izatea.

2001eko udaberrian, Baztango harakin eta abeltzainek Baztan izena nolabait babesteko

eskaria egin zioten Udalari. Beraien eskarian ziotenez, enpresa baten Baztango Aretxea marka sartu nahi izan zuen merkatuan, baina balleko haragia izan gabe, noski. Orduan, laguntza eskaintzea eta Baztan izena erregistratzea erabaki zuen Udalak. Jose Ignacio Martinez Alfaro, Nafarroako Gobernuo Nekaritza eta Abeltzaintza kontseilariarekin ere bildu ziren, eta Baztan izena modu ez egokian erabiltzea kontsumitzaileak engainatzea zela jakinarazi zioten.



ARTXIBOKOA

Balleko haragi eta esnekiak Baztangoa izenarekin merkaturatuko dira.

ERREPIDEAK

Ilrurita eta Elizondo arteko bidearen egoera penagarria salatu dute kaltetuek

N-121-B errepideak Ilrurita eta Elizondo artean duen egoera penagarriaren ondorioz istripuak edo kalteak izan dituzten hamabortz bat gidarik Nafarroako Gobernuo Herrilan Departamenduaren aurkako salaketa egin du-

te. Otsaila hasierako euriteen ondorioz, berez egoera txarra zuen errepideak okerrera egin zuen eta istripu aunitz gertatu ziren. Tarteka zuloak estaltzen dituzte, baina euriak berriz ere agertarazten ditu. Ondorioz, hainbat zi-

rrika lehertu dira. Patxi Oartzabal alkateak jakinarazi duenez, udala behin baino gehiagotan zuzendu zaio Herrilan Departamenduari aferaren berri emanez, baina erantzuna beti berbera izan da: «ez dago aurrekonturik». Soluzioak eskatzeko errepide moztaketak egitea ere proposatu dute gidari batzuk.

LARRALDEA SAGARDOTEGIA

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • LEKAROZ
© 948 452121

ANTXITONEA Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853

Eskisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

ARMUA Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

BAZTAN

Irakeko gerraren kontrako mozioa onartu du Balleko Etxeak

Gan den larunbatean elkarretaratzea egin zen Elizondoko plazan

ttipi-ttapa

Baztango Udalak Nafarroako Hiritar Plataformako gerren aurkako batzordeak igorritako manifestuaren alde agertu zen, EA eta Batasunaren aldeko mozioekin eta UPNren abstentzioarekin. Erabaki honekin, Iraken aurkako gerra hastearren kontra agertu da Udala. «Nafarroa eta Euskal Herri osoko populazioa —diodi idatzia—, baita estatukoa ere, gerra honen kontra azaldu da, baina hori ez da nahikoa Aznarren gobernuak gerrari ezetz erra-teko». Idatziak dioenez, «multinazional eta gobernuentzat errentagarririk dira gerrak, baina herriak dira ondorioak sufritzen dutenak, hildakoekin eta sufrimenduekin. teleberri odoltsuak lasai ederrean ikustera eta horretara ohitzera behartzen gaituen kate hori xehetzeko eginahalak egitea dago-gogik». Espainiako Gobernari, gerran parte



ARGAZKIA: ONDIKOL

Baztan ikastolako haurrek San Blas eguna ospatu zuten erroskilak eginez. Irakasle eta gurasoek ere parte hartu zuten erroskilak egiten eta gero, lagun eta senideen artean banatu zituzten.

ez hartzeko eskatuko dio Balleko Udalak.

Gan den larunbatean, otsailak 15, Irakeko gerraren kontrako elkarretaratzea egin zen Elizondoko plazan, eguerdiko 12:00etan. Egun berean manifestazioa egin zen Iruñean eta bertan parte hartzeko gobitea ere egin zuen Udalak.

Pedro Agerrebere izendatu dute Arraiozko alkate azkenean

Otsailaren 9an egin dako batzarrean izendatu zuten, azkenean, hurrengo bi urtetan Arraiozko alkate izanen dena. Bosgarren saikera zuten Arraiozen eta Pedro Agerrebere Oteiza izan zen hautagai bakarra. Beraz, bera iza-

nen da alkate. Mardea auzoko kargodune Javier Otxandorena izanen da, Urrutiakoa Angel Bergara, baserrietaz azken bi urteetan alkate izan den Cristobal Bengoetxea arduratuko da eta Kallerin auzoaz Juan Carlos Mortalena.

FLASH

Guardia zibilarenak izandako hiru kuartel saldu ezinik

Amaiur, Beartzun eta Urkiagan, garai batean guardia zibilak erabili zuten etxeak saldu ezinik dabil Espainiako Barne Ministeritza. Amaiurko Borda jauregia azken bi urtetan salgai dago, eta geroztik prezioa erdira jautsi bada ere, oraindik ez da eroslerik azaldu. Beartzungo Gaztelua gan den urteko irailean jarri zuten salgai, 180.303 eurotan, baina ez da eroslerik agertu. Orain, Urkiagako kuartelaren kalifikazioari buruzko informazioa eskatu dute udalarekin Madriletik, ustez saltzera jartzeko.

Hurtzaindegia egiteko dirulaguntza

0-3 urte bitarteko umeendako hurtzaindegia erakitzeko dirulaguntza eskaria egin du Balleko Udalak. Baztango Haur Eskolako eskaria handitu dela eta gaur eguneko zentrua behin behinekora dela jakinarazi du Udalak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Zuzendaritzari egindako eskarian. Eskariarekin batera, zentru berriaren aurreproiektua ere aurkeztu du Udalak.

Lur eroria Gartzainen

Otsaila hasierako eurien ondorioz, lur eroria izan zen Gartzaingo Ariztegi auzoan, Bereko tekobordara base-rrira doan bidea itxiz. Otsailaren 4ean gertatu zen eroria, Azketa inguruan eta zenbait egunez, oinez bakarrik ailegatzen ahal zen Berreko tekobordara.

ONASKA
ERRETEGIA
Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • **ELBETE**
© 948 45 20 88

asnáp me
servicio completo de gestión y asistencia empresarial

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Garrantziak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igehseroak...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZTIAK
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garrantziak asessoramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aitortpenak

DONETZETE
Baztan, 4. bulego
Telef: 948 451922 Telefax: 948 451418
www.asnapme.com

ELIZONDO
Baztan, 51. bulego
Telef: 948 580 506
elzondo@asnappme.com

BEZUNZA
Baztan, 1. bulego
Telef: 948 262208 Telefax: 948 261949
bezunza@asnappme.com

SENPERE

Lerra tokia eraikiko da gazteentzat kirol zelaia ondoan

Batera plataformak senpertar ainitzen sustengua eskuratu du

Franck DOLOSOR

Skate pista bat edo lerra toki bat eraikiko du herriko etxeak kirol zelaiaren ondoan. Otsailaren 10ean ospatu zen herriko kontseiluan, jostatzeko toki berri hori egitea deliberatu zen. Herrian 30 bat gazte interesatuak dira skate-egiteaz Donibane-Lohitzunen bezala. Orotarat, 24.000 euro baliatuko ditu herriak, erdia materialarentzat eta bertze erdia tokia behar den bezala antolatzeke eta aparkaleku eta sartzetak moldatzeko. Eskalada pareta bat altxatzea gazteentzat proposatu zen iragan zen debatan baina azkenean lerra tokiaren alde egin zuten kontseilari gehienek.

Batera manifestaldia

Senpertar ainitzek esku hartu zuten Baterak otsailaren lehenean Baionan ospatu zuen manifestaldian. Andere auzapez gain, zombait kontseilari juntatu ziren bai eta herritar batzuk. 7.000 manifestarien artean beren presentziak utsa erakutsi zuen Bateraren proiektuen garrantzia gure herriarentzat. Plataforma berri hunek euskal departamendua, euskalaren ofizialtasuna, laborantza ganbara eta uni-

bertsitate oso bat Baionan sortzea galdegiten du. Ondoko zortzi hila-beteetan mobilizazio frango egingen da Bateraren inguruan.

Batera laguntzeko xedearekin, azken herriko kontseiluan deliberatu zen 150 euro ematea euskal departamenduaren aldeko hautetsien elkarteari. 27 kontseilarietarik hogoik alde bozkatu zuten bertze zazpiek abstentzioaren hautua egin zutelarik.

Ate irekiak laborantza lizeoan

Saint-Christophe laborantza lizeoak ate ire-



Senpertar frangok parte hartu zuten Bateraren manifestaldian.

kiak egun ospatu zuen gan den otsailaren lehenean.

Gazte ainitz hurbildu zen informazio bila jakiteko hor zer erakasten den xuxen. Gaurko egunean 178 gazte dabilta Beñat Antxordokik zuzentzen duen ikastegian. Eskola huntan ikasgai berriak eman nahi dituzte BTS GPN bat bezala (izadiaren babesaren kudeaketa).

Mementuan proiektu bat bertzerik ez da bainan eskola emaleeri beharrezkoa iduritzen zaiote ikasgaiak zabal-

Azkain, Sara eta Senpereko harpidedunei

Urtero bezala, ailegatu da ttipi-ttapa eskuratzeko harpidetza saria ordaintzeko garaia. Aurten urteko sariak honako hauek izanen dira Azkain, Sara eta Senpereko harpidedunentzat:

- Posta arrunta: 35 €
 - Sara, Senpere eta Azkainen, okinekin: 30 €
 - Sarako Herriko Etxeko edantegian: 20 €
- Diru-sarrerak lehenbailehen egin behar dira, bertzenaz, izenak kenduko baititugu.

ttipi-ttapa fundazioa

tzea gero eta jende gehiago, eta beraz ga-

tze gehiago, biziko baita gure eskualdean.



MARTIKO

Abatekietan adituak eta arituak

© 948 625016 • Fax 948 625036

Alkaiaga Industrialdea • BERA



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

AZKAIN

Herriko errugbilariek derbia irabazi zuten Sararen kontra

Korrikak Azkain zeharkatuko du aurten ere

Ihntza, Angela eta Eneko

Lehen faseko matxak ongi erama zituzten Azkaindarrek eta hirugarren tokia lortu zuten Sarako gibelean. Horri esker bigarren faseko zerrendan sartzen ahal izan dira, Sara, Kanbo eta Mendikotako bertze talde eskualdunekin batera.

Eta preseski lehen matxa Sararen kontra jokatu zuten Otsailaren 9an Azkainen. 10 eta 6 irabaziz (lehen ensegua Jean Pierre Hiribarrenek markaturik).

Oraitik aintzina Azkaindarrek ez dute 4-ko multxoan azken gelditu behar ez badute maila batez jautsi nahi. Lehen postua lortzeak aldiz Frantziako xapelketak jokatzeko txartela eskianiko lieke.

Jokolarien iritzi lehen postua lortzeko Kanboko taldea gainditu beharko da eta ez da errexa izanen.

Korrikak Azkain zeharkatuko du aurten ere

13. korrika apirilaren 4an abiatuko da Mauletik eta Iparradeko probintzia 4an eta 5an zeharkatuko du, Irunerat heltzeko apirilaren 13an.

Aldi guziz bezala AEK-kelkarte guziei zabaltzen die deia. Aurten korrika panpina erosten ahalko da 150 erotan, edo kilometro bat eros daiteke elkartearen izenen 150 eurotan ere.

Zikinen biltzeko ordutegi berriak

Herrien arteko zikinen tratatzeko sindikatuak ordutegi berri bat antolatu du Azkainen. Astearte eta ortzegu-netan bilduko dira 6ak eta 13ak eta 30en artean eta larunbat goizetan. Zabor pisuak hilabeteko lehen eta hirugarren ortziralean herriko zentroaren zat. Bertze auzoentzat, bigarren



ARGAZKIA: ENEKO

Errugbilariek bigarren fasean segitzen dute, Kanbo, Sara eta Mendikotako taldeekin batera, Frantziako xapelketa jokatzeko esperantzarekin.

eta laugarren ortziraleetan.

Mus

Betze urteetan bezala Union Basque xapelketako lehen lehaketak Plazan ostatuan eginen dira Azkaindarrentzat. Otsailaren 21ean hasiko dira ortziralez eta bi alditan eginen dira. 10 euroko parte hartzea eskatua zaio parte hartzaile bakoxtari

Mutxikoak 22an

Hilabeteko bigarren igandean egiten diren mutxikoak ondoko larunbaterat gibelatuak izan dira, Ihauterikari. Otsailaren 22an eginen dira arratsaldeko 5-etan karrika ibilaldiaren ondok.

Larrungo ralia

Larrungo Ralia auto lasterketa Martxoaren 2an eginen da Azkain eta Sararen artean. Lehen autoak 9ak eta 45 etan abiatuko dira Azkaindik. Auto bakoxtak bi erlojupeko eraman beharko ditu, lehena Azkaindik Sararat, bertzea Saratik Azkainerat.

Kirol emaitzak

Otsailaren 9an Jon Laduxek eta Xabi Jolimonek pilotari gazteek Euskal Herriko xapelketako finala jokatu zuten.

Saskibaloian gizonen segitzen dute matxa guzian irabazten, 13 garaipen eta galtzerik ez orai arte. Neskek aldiz ez dituzte errextasun be-

rak beren multzoan, bosgarren tokia baizik lortzen ez baitute.

Mendi ibilaldiak

Ibiltzaile mendi taldearen Ateraldiak hauek zanen dira : Otsailaren 23an, Arraioa, Terminen Muga, tren geltokia. 25an, Bidarra Iparla ; 27an, Dantxaria, Gropel, Esteben baserria; Martxoaren 3an, Aritzakun ; 4an, Jaxola Larun ; 6an, Aritzakun ibarra ^ Irubetakaskoa.

Elkarretaratzea

Euskal Preso politikoaren hurbiltzearen aldeko elkarretaratzea Martxoaren 1ean eginen da eguerditan kioskaren ondoan, larunbaterekin.



TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA

ALFONBRAK SALMENTA

MARTXO BITARTEKO ESKAINTZA

Eguzkitik babesteko toldo 1 erosiz gero, %10 merkeago



☎ 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK

ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK,
MOSKITERAK eta VENEZIANAK









SALMENTA

MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

SARA

Ihauteriak martxoaren lehen aste hondarrean iraganen dira

Larunbat goizez etxez etxe eskean aterako dira gazteak

Xan HARRIAGUE

Ihauteriko sasoin bate betean gara, herri batzuetan pasatuak dira eta bertze batzuetan berri egitekoak. Saran matxoaren 1ean eta 2an iraganen dira. Larunbatean goizik abiatuko dira Sarako gazteek etxez etxe ibiltzeko, gomita luzatua da parte hartu nahi duten guzieren, mozorroturik bistan dena. Ibilaldi luze baten ondotik gauean Sarako plazara itzuliko dira trago bat edanez pasa duten egunaren abentura aipatzeko. Biharamunean bestondo pixka bat izanen bada ere 11ak aldean, gazteen desfilea Zarpantzarren auzia, eta ondotik dantzak, aperitifarekin. Oren bat aldean berriz ikastolako burasoen presatuko duten bazkaria, partehartu nahi duten guzieren txartela aitzinetik hartu behar dute. Az-

kenik ihauteriak bukatzeko eta oraindik animatuak direnentzat osatu eta benten itzulia.

Dantza taldeko bilkura nagusia

Zazpiak bat dantza taldeak bilkura nagusia egin zuen joan den urrian, pasa den urtearen bilduma egiteko. 73 ikasle daude taldean horietariko 5 berriak direlarik eta 10 mutiko gazte. 2001eko gabonetan eguberriko krakada egin zuten eta Olentzerok opari batzuk ekarri zituen. Ihauterietan igandearekin, plazara hurbildu ziren, arduradunen arabera momentu goxo bat izan zen haur guzieren mozorro ederrekin etorri bait ziren. Martxoan afari bat eta ikusgarri bat antolatu zuten urte guziko lana aitameri erakusteko, antolatzaileak ezkor atera ziren burasoen erakutsi zuten

interes guttiarengatik. Maiatzaren 8an, baiona iragaiten zen Dantzari Ttikira 50 bat ikasle joan ziren eta denbora kaskarra izan eta ere egun goxo pasa zuten. Baliteke heldu aurtengo dantzari ttikia Pauen izatea. Apirilatik aitzina eta ekaina arte ostiraleren Omordian egiten diren ikusgarriak hasiko dira. Udako 4 ikusgarri nagusiak eta erromeria ongi pasa ziren nahiz eta haur gutti etorri urte guzian landu dutenaren erakusteko. Bilkura horretan azpimarratu zen burasoen ez zutela aski parte hartzen elkartearen bizian eta ateak idekiak zirela lagundu nahi duten burasoen guzieren. Aipatu behar da ere Zazpiak bat taldeak Bai Euskarari akordioa sinatu duela eta horren ondorioz ahal den neurrian kurtso guziaz euskaraz emanak



Argazkia: Gara

Sarako Arrieta eta Elizerik lortu zuten Euskal Herriko txapela pasakan, finalean Lataste eta Zibururi 13-11 irabazi ondotik.

izanen dira. Txistuko kurtsoak segitzen dute, beraz zuen seme alaba batek musikaren zaleatasuna erakusten badu deitzen ahal duzue Jean Pierre Etxeberria zenbaki huntara 05595428222.

Errugbia

Sarako taldeak, aseturu batez pausatu eta, bigarren fasean sartu da. Pentsatzen ahal zen bezala lehen multzoa sartu dira Kanbo, Azkaine eta Mendikotarekin batera, baina ez zaie batere erretuko. Orain finalerdietara heltzeko lehen hiru tokietatik batean sailkatu beharko dire.

Bigarren fase hori gaizki hasi dute otsailaren 9an galdu bait zuten Azkaineren kontra 10 eta 6. Gaurtik aitzina inportantena izanen da etxean jokatzeko diren partidak guziaz irabaztea.

Adinekoen bazkaria

Herriak urte guzian egiten duen bezala bazkaria eskaini zuen hirugarren adineko jenderi otsailaren 8an larunbatearekin, usaian bezala arrakasta haundiko hitz ordua izan zen 100 bat lagun bildu bait ziren lehengo kontuak aipatzeko eta momentu on bat pasatzeko bazkari on baten inguruan.

bentamiguel
denda, jantziak eta osaketa

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Taldea
Lokala
Jantziak
Unaiategia

Ibardingo Lepoa • © 948 631209

PINTURAS ERROTAZAR

• Pintura lanak
• Prokorreran
• Fatxaden
• Berritzea

LESKA

Ekaita sarraskia
kompostazun gabe

943 63 86 19 • 659 609 678

GAZTANDEGIA

Lizun

Etxeko
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

BURKAITZEA

ostatu
erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km.
© 948 599280 • URDAZUBI

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

CAFÉ DE LA MAIRIE

MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519



EZKONTZAK

Ignacio Maria Etxeberria Hualde eta **Ana Isabel urtxulutegi Nicolas**, Zubieta eta Doneztebekoa, otsailaren 8an.
Juan Miguel Sorozabal Arretxea eta **Maria Asuncion Perneguy Alty** Sunbilla eta Elizondokoa, otsailaren 1ean.



SORTZEAK

Ane Aizpuru Jorajuria, Irungoa, urtarrilaren 16an.
Naroa Bertiz Aranburu, Lesakakoa, otsailaren 3an.
Julia Artieda Vila, Berakoa, urtarrilaren 29an.
Manex Ramos Zumalde, Berakoa, urtarrilaren 30ean.
Omar El Haou Eddarhour, Narbartekoa, urtarrilaren 29an.
Maialen Sein Irigoien, Doneztebekoa, otsailaren 4an.
Elisabet Urroz Kovalyk, Oitzkoa, urtarrilaren 29an.
Oier Sein Lizardi, Igantzikoa, otsailaren 4an.



HERIOTZAK

Nicolasa Andreu Galech, Elizondon, otsailaren 4ean, 89 urte.
Guillermo Durruti Meaka, Erratzukoa, otsailaren 6an, 79 urte.
Demetrio Fernandez Vega, Berakoa, otsailaren 9an, 71 urte.
Martina Inda Apeztegia, iturengoa, urtarrilaren 20an, 81 urte.



Eskela eta eskertzak
 948 631188

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-tt**para igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.



G U T N T I T L E
I CHE
 GESTI NES F NE ES EL N TE, S.L.

TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
 Urdazubi eta Zugarramurdin
 24 orduko zerbitzua tanatorioan
 eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704

gaztelu

iturgintza

kalefakzioa
 saneamendua
 gasa

© 948 510086 / 510156

fax: 948 610856

LEITZA

ORDOKI LIKOREAK

Tel.: 948453410

Fax: 948453378

ARIZKUN

ERRETEGIA

Parrilan egindako
 haragi eta
 arrainak



DATUAK...

• Ama lekaroztarra eta aita zigarra ditu Cesar Sarrateak. Bera duela 25 urte jaiotzen iruñean, baina denbora libre gehiena Baztanen pasatzen du. «Koadrila Iruritakoa dut, Lekarozen ere lagun aunitz ditut...»

• 1989an hasi zen zesta-puntan aritzen Noainen. Laxoa eta erremontea ere probatu ditu, baina guti. «Paxaka txapelketan izena eman nuen iaz, baina bi bakarrik elkartu ginen, hirugarrena falta genuen». Zesta-punta azkarragoa dela iruditzen zaio, baina laxoak teknika gehiago eskatzen du: «Ezberdinak dira».



JOSUNE ITURZAETA

Cesar SARRATEA *Zesta-punta pilotaria*

«Estatu Batuetan zesta-puntan aritzeko bertze guzia utzi behar duzu»

Aitor AROTZENA

Otsailaren 2an jokatu zen Elizondoko pilotalekuan Euskal Herriko zesta-punta txapelketako lehen jardunaldia. Noaingo Jai-Alai taldeko eta Bizkaiako Berriatua herriko pilotariak izan ziren aurrez aurre. Jai-Alai taldean ari da sortzez iruñearra baina bihotzez baztandarra den Cesar Sarratea. Orain arte Nafarroako bi taldek parte hartzen zuten txapelketa honetan, Kabanillas eta Noaingoak. Aurten parte ez hartzea erabaki dute eta Noainen aritzen ziren pilotari batzuk, Jai-Alai talde berria sortu dute. «Euskal Herriko txapelketan parte ez hartzea erabaki politikoa izan zen. Pilotariok ahalik eta partidu gehien jokatu nahi ditugu eta klub berria sortu dugu. Noainen aritzen uzten ez digutenez, etxeko partidak Elizondon jokatuko ditugu» dio Sarrateak.

Azken urteetan bigarren mailan utzi badu ere, esperientzia handia du Sarrateak txapelketetan. «Noaingo taldearekin urtero aritu ginen Euskal He-

Zesta-puntan ahalik eta partidu gehien jokatu nahi ditugu.

Noaingo klubak Euskal Herriko txapelketan ez aritzeko erabaki politikoa hartu zuen eta guk Jai-Alai kluba sortu dugu.

riko txapelketan, Espainiakoan ere bai. Azken honetan emaitza hobek eskuratu ditugu, federazioen arteko arazoak direla eta, Euskal Herriko klubek ez baitute parte hartzen. Behin Espainiako txapelketaren finalean sartu ginen, baina Gipuzkoako bikote baten kontra galdu genuen».

«KRISIA PASATU DU ZESTAK EEBBTAN, BAINA ORAI BURUA ALTXATZEN ARI DA» Izan ere, Nafarroa oraindik bigarren maila batean dago zesta-puntan, Gipuzkoa edo Bizkaiarekin konparatuz gero: «Kontra pixko bat egiten diegu, batzuetan irabazten diegu, baina gehie-

netan galdu. Uda partean aunitz aritzen dira horiek, Herriarteko txapelketak jokatzeko dituzte eta hori nabari da neguko txapelketan».

Elizondon jokatuako lehen jardunaldi horretan omenaldia eskaini zion Jai-Alai taldeak Ismael Biurrun «Napa»-ri, Estatu Batuetan aritzen den Nafarroako zesta-puntista profesional bakarrari, hain zuzen. Sarratearen bikote izan zen urtetan Napa eta berak ere izan zuen Ameriketako aritzeko aukera. «Eskaintza egin zidaten, ea nahi nuen gan, baina horretarako dena utzi egin behar duzu... Nik hemen lana daukat, familiarik lantegia sortua genuen garai hartan eta ezin nuen utzi». Garai batean krisian izan zen zesta-punta EEBBTan eta Filipinatan. «Due-la 12-14 urte boom bat izan zen, jai-alaiak ireki ziren, jendeak apostatzen zuen... Gero Ameriketako apostuak egitea debekatu zuten eta kirisialdi horretan frontoiak hertsu, pilotariak honat bueltatu ziren... Orain berriz ere mugitzen hasi dela ematen du».

PILOTA



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Bortziritako eskuz banakako bigarren txapelketa honetan parte hartu duten pilotari gehienak Arantzian izan ziren finalak ikusten eta sariak hartzen.

Bortziritako eskuz banakako txapelketako finalak jokatu ziren

Arantzan otsailaren 2an akautu zen bigarren edizio hau

A. A.

Bortzirriak pilota elkartek bigarren aldiz antolatutako eskuz banakako txapelketan 96 pilotarik parte hartu zuten eta otsailaren 2an jokatu ziren finalak Arantzako pilotalekuan. Ez zen ikuskizun polita suertatu, bai aitzin pareta baita ezkerrekoa ere bustiak baitzeuden. Nahiko lan izan zuten pilotariek pilota bustien botea nolakoa izan zen asmatzen eta oinak behar bezala tinkatzen.

Ume ttikien B mailan, Etxalarko Altxata elkarteko Aitor Danborienak 18-7 irabazi zion Bera-ko Gure Txokoako Mikel Morenori.

Ume ttikien A mailan, Lesakako Arkupe elkarteko bi pilotarien ar-

tean jokatu zen azken partidari, Mattin Arbelaitz 18-7 gailendu zitzaion Unai Zamorano-ri.

Umeak B mailan, Igantziko Biltokiko Adur lantzik 18-12 irabazi zion Etxalarko Altxatako Beñat Maiari.

Umeak A mailan, Igantziko Biltokiko birdezkari aritu ziren txapelaren bila. Azkenean, Eneko Telletxearentzat izan zen, 18-13 irabazi baitzion Iker Rojori.

Kimuak B mailan, Arantzako Ekaitzako Ander Almandozek 18-9 irabazi zion Lesakako Arkupeko Xabier Susperregiri.

Kimuak A mailan, Igantziko Biltokiko Beñat Txoperenak 18-5 irabazi zion Arantzako

Ekaitzako Unai Iparragirri.

Haurrak B mailakoa izan zen parekatuena. Bi finalistak Arantzakoak ziren. 8-13 eta 14-17 gibeletik izan ondotik, 18-17 irabazi zion Jon Altzurik Josu Larretxeari.

Haurrak A mailan ere arantzarrak ziren bi protagonistak. Joseba Madariagak 18-11 irabazi zion Imanol Mitxelena-ri.

Kadete mailan, azkenik, Lesakako Arkupeko bi pilotari izan ziren finalean. Xabier Maritxalarek 18-16 irabazi zion Jon Olaizolari. Gisa honetara, binakako nahiz banakako txapelak irabazi zituen pilotari bakarra izan da Maritxalar.



Ume ttikien B mailako txapeladuna, Etxalarko Altxata elkarteko Aitor Danboriena. 16 urte bitarteko 96 pilotari aritu dira txapelketan.

FLASH

Nafarroako kross txapelketa

Otsailaren 2an jokatu zen Iruñean Nafarroako kross txapelketa. Bertan, eskualdeko ordezkari zabala izan genuen eta emaitza onak ere bai. Txapelik ez zen lortu, baina mutilen maila nagusian bigarren eta hirugarren postua eskuratu zuten Hiru-Herri taldean ari diren Rafa Maritxalar lesakarrak eta Antonio Bru bertarrak. Espero bezala, talde bereko Gabriel Garin izan zen txapeldun, baina lanak izan zituen Rafa Maritxalar gainditzeko. Lesakarrak probako hameka kilometroak kasik bakarrik egin zituen eta azken esprinean nagusitu zen Garin. Emakumeen senior mailan, Beste Iruña taldean ari den Maika Ariztegi ittundarra bigarren izan zen, Estela Navascues txapeldunetik lau segundura. Iñaki Mihura arraiotarra 13. izan zen sailkapen orokorrean baina garaipena lortu zuen promesas mailan.

Errandonea lau terdian azpitxapeldun

Ezin izan zuen Inaxio Errandoneak Besagain enpresak eta Espainiako Pilota Federazioak antolatutako lau terdiko txapelketa ofiziala irabazi. Otsailaren 1ean jokatu zen finala Almeriako Godar herrian eta Fernando Arretxek 22 eta 18 irabazi zion Errandoneari. Hasieran aitzinetik izan zen Inaxio, baina hemezortzina berdindu ondotik, tantu guziak Arretxek egin zituen. Partida polita eskaini zuten eta gustura ageri ziren biak.

AGENDA

egunez
egun

MENDI IBILADIAK

BAZTAN

Otsailaren 23an Oltzartera aterako da Baztango Mendigoizale taldea.

LEITZA

Otsailaren 22an ume eta gazteen irteera. 9:00etan plazatik.
Otsailaren 23an helduentzat mendi irteera Valderejora. 8:00etan plazatik.

ESKI ATERALDIAK

BERA

Martxoaren 8an Luz Ardidenera ateraldia antolatuko du Agerra Mendi Taldeak. Izen ematea 617 723475 (Luis Mari) edo 677 559436 (Zubieta)

ZINEMA

LEITZA

Otsailaren 21an eta 23an «11-09-01» filmea ikusgai, ostiralean 22:30etan eta igandean 19:30etan.
Martxoaren 7an eta 8an «Historias mínimas» filmea ikusgai, ostiralean 22:30etan eta igandean 19:30etan.

BERA

Otsailaren 20an «La boda del monzón» filmea ikusgai, 20:30etan Kultur Etxean.

IKASTAROAK

LESKA

Otsailaren 27tik maiatzaren 29ra sukaldaritza ikastaroa antolatuko du Herri Eskolak, Imanol Elizalde, Kasinoko sukaldariarekin. Ortzegunero bi ordu. Izen ematea otsailaren 22a baino lehen Izarra okindegian (20 €).
Martxoaren 1 eta 8an kimaketa ikasketa saioak Fermin Maritorenarekin. Izen ematea otsailaren 28a baino lehen Izarran (10 €).

TELEBISTAKO TXOKOA



IÑAUTERI OFIZIALEN TXANDA IRITSI DA

Iñude eta artzaiek 25 urte beteko dituzte Beran

Urte hasieratik iñauteriak ospatzen ari gara eskualdean, baina azkenean ailegatu da iñauteri ofizialen txanda. Ortzegun Gizeneko eskekin hasiko dira, «Arraultze, arraultze, zingar arraultze, bat ez bada bertzee» oihukatuz ibiliko dira neska-mutikoak bazter auniztan. Gero, asteburuan, pertsona ezberdinen txanda izanen da: zakoza-rrak Lesakan edo iñude eta artzaiek Beran, beraien joan-etorriak eginen dituzte martxoko lehen igandean. Beran ospakizun berexia izanen dute, gainera, aurtan 25 urte beteko baitira iñude eta artzairen lehendabiziko konpartsa atera zenetik. Ospakizun honen inguruan

antolatuko diren ekitaldien berri ere izanen duzu TTIPI-TTAPA TELEBISTAN. Errate baterako, 25 urte hauetako argazkien erakusketa izanen da eta mende laurden honetan iñude, artzain edo musikari izan direnak bildu nahi ditu Gure Txokoa elkarteak. Ikusgarria izanen da, dudarik gabe.

KARROZEN DESFILEAK

Azken urteetan indarra hartzen ari dira karrozen desfileak herriz herri. Sunbillako karrozak ikusgarriak izaten dira, baina ez dira gibelean gelditzen Donezteben, Etxalarren, Beran edo Lesakan prestatzen dituztenak.

DISKAK



«Zaldiak hartuta»

Mikel Telleria

KUMA DISKAK, 2003

Mikel Telleria duela bi urte agertu zen musikaren plazara, «Deklarazioa» diskoarekin (Gaztelupeko Hotsak), eta orain bere bigarren lan honekin bueltatu da agertokiara. «Deklarazioa» hagitz disko lasaia zen, intimista eta pertsonala erraten den horietakoa. «Zaldiak hartuta» lana, beriz, erritmo biziagokoa da, rock diskoa azken finean. Guztira bederatzi kanta grabatu ditu gipuzkoar-rrak, zazpi musikariren laguntzaz. Lehendabiziko kanta, diskari izena ematen diona, hain zuzen, Arestiren esaldi famatu batekin hasten da (Ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak) eta azkena (Arroketan) Irlandara begira jartzen da. Tartean, Axularren «Gero»ren aipamena ere badu. Telleriaren bigarren lan hau Kumak, abeslariak berak Eibarko enpresa batekin sortutako diskoetxeak, argitaratu du.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Urtarrilaren 17tik 24era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 30,00 €

Zerri gizona
0,915 € kiloa.

Zerramak:
0,39-0,44 € kiloa, bizirik.

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,25
1.koa 3,12
2.koa 2,84

Urruxak: Pta/kg. Kanal
Extra 3,30
1.koa 3,18
2.koa 2,93

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):
Mestizoak: urruxak 262,00 € eta idixkoak 252,00 €

Nabarrak: urruxak 206,00 € eta idixkoak 182,00 €.

Zaldikoak:

€/k
Sortuberriak: 2,79/2,95
Zaldi-behorrak: 1,80/1,86

Bildotsak:

€/k
6-8 kilokoak: 5,25/5,55
8-10 kilokoak: 4,40/4,75

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Maite zuten pertsona baten heriotza haurrei nola adierazi

Hurbileko pertsona bat galtzea familia osoarentzat kolpea izaten da. Egoeraz jabetzea helduei aunitz gostatzen bazaiagu, kontua korapilatzen da haurren kasuan.

Albistearen lehenbailehen eman behar diogu haurrari. Gu lasai agertzen ahal garen momentu bat aukeratu, haurrari gure ezinegona ez erakusteko. Bizitzaren gauza naturala dela jakinarazi behar diogu: izaki guztiak sortu eta hiltzen dira. Egoerak ez duela bueltarik erakutsi behar diogu, dramatismorik gabe: «*Amatxi ez dugu gehiago ikusiko, baina berezaz oroituko gara edo argazkiak ikusten ahal ditugu*». Galderak egiten utzi seme-alabei eta pazientziarekin erantzun.

Babesteko instintoa pizten zaiagu horrelakoetan. Gure seme-alabek sufritzea ez dugu nahi. Baina dolua handien eta ttikien premia da, heriotzaren oinazea gainditu ahal izateko. Ez dugu haurrari gauzarik gordinenak agertu beharrik: gorpua ikustea edo lurperatzera joatea ez da komenigarria. Baina hileta elizkizunera edo omenaldira joateak, maitatutako pertsonaz agurtzeko balioko



dio. Emozioak askatasunez agertzeak lagunduko dio. Gure seme-alabek gure bitartez bizituko dute heriotza. Horregatik, patxada agertu behar dugu. Triste baldin bagaude ere, gure eguneroko bizimoduarekin segituko dugu eta zaila baldin bada ere, dibertitzen saiatuko gara edo brok-magikaren erabilerarekin lagunduko dio. Bizenaz,

haurra, jostatzeko edo abesteko gogo baldin badu, errudun sentitzen ahal da. Bere aitaxia non dagoen jakin nahi badu, egia erran (lurpean). Ohiko bertze galdera bat sufritu ote zuen da eta hor argi mintzatu: «*Lasai joan zen eta gu gara bera faltan botatzen dugunak. Abudo pozez gogoratuko dugu*».

IÑAUTERIAK

ARANTZA

Otsailaren 22 eta 23an
Xehetasunak 13. orrian.

AZPILKUETA

Otsailaren 21 eta 22an.

IGANTZI

Otsailaren 22 eta 23an
Xehetasunak 12. orrian.

ARANO

Otsailaren 23an
Xehetasunak 22. orrian.

GOIZUETA

Martxoaren 3 eta 4an
Xehetasunak 23. orrian.

ZUGARRAMURDI

Martxoaren 2 eta 3an
Xehetasunak 25. orrian.

BERA

Martxoaren 1etik 3ra
Xehetasunak 9. orrian.

LESAKA

Martxoaren 1etik 4ra
Xehetasunak 10. orrian.

ETXALAR

Martxoaren 3 eta 4ean
Xehetasunak 11. orrian.

ELIZONDO

Martxoaren 3 eta 4ean.

ARIZKUN

Martxoaren 3 eta 4ean.

IRURITA

Martxoaren 1 eta 2an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Otsailaren 17tik 23ra

Etxalar, Elizondo (Iturralde), Irurita, Leitza (M.I. Larraia), Goizueta.

Ots. 24tik martxoaren 2ra

Arantza, Doneztebe (S. Larraioz), Elizondo (F. Garcia Mata), Mugairi eta Goizueta.

Martxoaren 3tik 9ra

Lesaka (O. Altzate), Nabarte, Elizondo (Lezaun), Arizkun, Urdazubi, Leitza (A. Jimeno) eta Goizueta.

BERAKO KULTUR BATZORDEA	Noiz: Otsailak 21, ortzirala Orduak: Arratsko 22:30etan. Lokua: Pui ostatua
Noiz: Otsailak 20, ortzeguna. Orduak: Arratsaldeko 20:30etan Lokua: Kultur-etxea	François Cambuzaut et les enfances rouges Il Gran Teatro Amarekkin ni aldiz bera inuitatu andatik, bere proiektu du François Cambuzaut-ek, musika esperimentalak.
Zinekluba: La boda del monzon Indiako filme honek, herrialde horretako ezkontza batera gerturatuko gaitu. Veneziako jaialdiko Urrezko Lehoa irabazi zuen Mira Nair zuzendaria.	Noiz: Otsailaren 27tik martxoaren 2ra IÑAUTERIAK Ortzeguna, 27: Zingar arraultze, 15:30etan haurren inudeak eta Artzaioak; 16:30etan De Traka taldearekin dantzaldia. Larunbata, 1: 19:00etan Kaldereeroak Herriko Etxetik Altxatzen; 18:30etatik 20:30etara Jalako Band. Astelehena 3: Zingar Arraultze, 18:00etatik 21:00etara Irats.

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu.

BULDAIN LEITZAN

Pisu berriak salgai.
Elbarren kalean,
Arakindegia jatetxearen
parean.
12 etxebizitza
izango dira
eta baita lokal komertzial
ederrak ere.

☎ 649 476 615
☎ 948 510 534 bulegoa

BULDAIN LEITZAN

Manuel Lasarte Kalean
garaje berriak salgai.
☎ 649 476 615
☎ 948 510 534 bulegoa

BERA.Etxe elkartuak salgai. Garajea bi kotxeentzat, gordelekua eta komunarekin. 4 logela, ganbara eta lorategia urreztatze automatikoarekin. ☎ 948 631 322 (Joseba).

ETXEBIZITZAK 104 Errentan hartzeko

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 626 852 937

BERA. Pisua edo bizitzeko egokituriko "teilatupea" har-

tuko nuke. ☎ 655 706 363 (arratsaldeko 5etatik aintzin).

GARAJE/LOKALAK 109 Errentan emateko

BERA. Bidasoa 49, lokal bat errentan emanen genuke. ☎ 948 631022.

BERA. Garajea errentan eman nahi da. Bidasoa karrikan, telefonikaren ondoran. ☎ 948 631 033

BERA. Kanttonberri, 4. Bajora errentan emateko. ☎ 600 902 665

LANA 301 Eskaria

Emakume eta gizonezko bat edozer lan egiteko eskeintzen dira. ☎ 650818985

Bi lagun lanaren truke, bizitzeko etxe batean bila gabiltza. Nahiago genuke nek-zalturismo edo baserri batean. ☎ 656 742 410

Giza-kultur dinamizatzaile, sexu-hezitzaile eta erlazio-publikoetan teknika den pertsona bat, lan bila dabil. ☎ 656 742 410

LANA 302 Eskaintzak

Kamarero bat behar da ostatuan asteburuetan lan egiteko. ☎ 948 631 394

Emakume euskaldun bat

behar dut asteleheneretik ostiralera gurekin bizitzeko, etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko Donostian. Ondo ordainduko dut. ☎ 607 183 166 (Izaskun)

Sukaldaria behar da Iruñean. ☎ 948 189 430 - 948 186 448 (Jose M^a)

Kamarero/a bat behar da ostatuan lan egiteko. ☎ 948 631 428

Aire kontrolatzailea aire-portuendako. AENAren deialdia. Diplomatu edo lizentziatua izan behar da. Ingles maila ertaina. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Autoeskolako irakaslea. Langabeziariak gabeko lanbidea. Diru sarrera handiak. Presta zaitetz. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Oihantzaia. Euskadiko parke eta natur erreserbatan lan egin ezazu. Eskola Graduatua. Presta zaitetz. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Suhiltzaileak. Euskadiko parketan lan egin ezazu. Lan baldintza ezin hobek. Es-

kola Graduatua. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Garraiolari profesionala izateko titulua lortu. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Udaltzaingoa laster deialdiak Udaletxeetan. Betebeharra: Eskola graduatua. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Liburutegi laguntzailea Udaletxeetan. Betebeharra: Eskola graduatua. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Administrari laguntzailea. Herriko Etxeetan laister deialdiak. Eskola Graduatua. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Banku edo Aurrezki Kutxetan laguntzaileak behar dira. Batxilergoa. Laister deialdiak eginen dira. Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

Langilea Udaletxeak: Gidariak, Argiketariak, kontserjeak, langileak... Informazioa: Adoz ☎ 943 444 509.

MOTORRA



BAZTANGO UDALA

Sukaldean erabilitako olioien
bilketa egunak

2003ko otsailaren 27an

Lekaroz	09:00-09:30	Karriketan barna
Gartzain	09:40-10:00	Karriketan barna
Irurita	10:10-11:00	Karriketan barna
Ziga	11:15-11:35	Karriketan barna
Aniz	11:40-12:00	Karriketan barna
Berroeta	12:10-12:40	Karriketan barna
Almandoz	12:50-13:20	Karriketan barna
Ornoz	13:30-14:00	Karriketan barna
Arraioz	14:10-14:30	Karriketan barna

☎ 948 580 006 • Baztango Udala



BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Sukaldean erabilitako olioien
bilketa egunak

2003ko martxoaren 6an

Lesaka9etatik 12etara
Igantzi13:00etan
Arantza14:00ak arte

☎ 948 635 254 - Etxalar

ARANTZA ZYRGINDEGIA
Jose Miguel Errandonea
Klase guztietako zurgin lanak
 Osiña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

MENDAUR MOTOR
 ☎ 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
 Peugeot 306 TD, Saxo D, Terrano 5 atekoa, Mitsubishi 3 atekoa, Patrol 5 atekoa, Renault 19 D, Opel Midi, Lada SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

Cheli Estelizista
 • Arpegio bitanerbait
 • Ospitaleko tratamendua
 • Manipulazioak
 • Depilazioa
 • Estetikak
 Zabalza Plaza, 8
 28011 MADRID
 Tfno: 948 61 84 88

BOAN TAILERRA
 CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 ☎ 948 63 06 23 • BERA

GANIX Tailerrak
 Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

501 Salerosketak

Trialeko motoa 370 cc, 1996koa salgai. Egoera eta prezio onena. Paperekin. ☎ 948 635 218 / 687 052 867 (20:30etatik aintzin)

Ford Mondeo TD grisa, 2000 urtekoa eta 30.000 kmrekin salgai. Airbag, ABS eta hai-ze egokituarekin. Egoera onean. ☎ 948 631 456

Renault 5 1.4 1989 urteko-ak kilometro gutxirekin. ITV 2004ko urtarrila arte. NA-Y. 200.000 Pta. trasferentzia- rekin. ☎ 629 014 677

Seat Marbella salgai. 48.000km. ITV berriki pasa- tua. Egoera onean. ☎ 948 580896-948580677 (Gauetz).

Citroen Saxo 1.1 salgai. 5 urte egin behar ditu. Egoe- ra onean. ☎ 948 630 556

LESAKA. Walkie-talkiea galdu nuen abenduaren 26an, Matxitenea parean. ☎ 948637467.

DENETARIK 702 Salerosketak

Sukalde industrial bateko elektrogailuak salgai. Oso egoera onean, urte guttiko erabilpena. ☎ 948 397 039

Esne hozteko tankea sal- gai. 100 litrokoa. ☎ 948 630 828

Piketeak salgai. Gaztain onekoak. ☎ 948 514 006 (8etatik 3etara).

Gaztain Piketeak salgai. ☎ 948 585 008.

Pinu Insignia landarea sal- gai. ☎ 943 557 230

Ikatz, harri ikatza salgai. ☎ 948 581 009

ARANTZA. Gasoilezko be- rogailuaren motorra sal- gai. ☎ 948 634 196

Zakurrak ibiltzeko alumi- niozko karroa salgai. 1,40 x 1,20. ☎ 948 580 385

Sutarako pago egurra sal- gai, puskatua. ☎ 948610686.

Menghini markako trikiti- xa salgai. Prezio onean. ☎ 948 514 245 (ilunabarrean).

DENETARIK 703 Bertzelakoak

Berako Zapatos Rondinau lantegian aritzen ziren lan- gileak otordu baten inguruan nahi dira bildu. Interesatuak deitu. ☎ 948 637766.

Soldadore lanak eginen ni- tuzke. Esperientzia handi- koa. ☎ 656 742 410.



Bidali ttipi-ttapa herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastua ordaindu behar da
 Eskatu informazioa

Espania	25 €
Europa	35 €
Amerika	105 €

(+34) 948 631188

ANIMALIAK 601 Emateko

Zakurkumeak oparitzen ditut. ☎ 948 631 261

ANIMALIAK 602 Salgai

20 ardiren deretxoak salgai. ☎ 948 514 122.

Asto emea umearekin sal- gai. 5 urteko aharea salgai. ☎ 948 634093-948634022.

DENETARIK 701 Galdu-aurkituak

BERA. Giltzak galdu dira. Autoaren mandoa eta etxe- koak. ☎ 948 630 963

Kate bat aurkitu da Ulibel- tza elkartean. Urrezkoa orain dela urte bat. ☎ 948 450 433



BERAko UDALA
 AYUNTAMIENTO DE BERA

ARAU SUBSIDIARIOAK ALDATZEA, IBARDINGO BEOLA BENTAN (4. POLIGONOA, 172. LUR-ZATIA) HASIERA BATEZ ONESTEA: JOSE BEOLA

2003ko urtarrilaren 30ean Udalbatzak egindako bilku- ran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

1. JOSE BEOLAK sustatutako Arau Subsidiarioen al- daketa, Ibardineko Beola Bentari (4. poligonoko 172. lur-zatia) dagozkion hirigintza arauak aldatzekoa, ha- siera batez onartzea.
2. Aipatu aldaketa hilabeteko epean jendaurrean jar- tzea, Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen di- ren egunkarietan eta Nafarroako Aldizkari Ofiziale- an aurrez aurreko iragarkia jarrita.
3. Arau Subsidiarioen aldaketa honek eragindako zo- naldean, hots, 4. poligonoko 172 lur-zatian, obra bai- menak ematea eten gelditu direla seinaleztatzea.
4. Erabaki hau interesatuari bidaltzea.

Bera, 2003.01.07
 ALKATEA, J.J. Goia Etxeberria

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.



KATTALIN BERASAIN GOIA beratarak otsailaren 6an urtea beteko du. Zorionak Ane eta familia guziaren partetik.



IRATI ZABALETA BALANZATEGI leitzarrak otsailaren 13an urtea beteko du. Zorionak eta urte askoz. Matte zattu guztio.




MAITE ARAMBILLET GALZAGORRI sunbildarrak 7 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak familiaren partetik.



JON ARRIZURIETA TELLETXEA leitzarrak urtea bete du otsailaren 12an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



OIHANA OTXANDORENA DORREGARAI doneztebarrak 9 urte beteko ditu otsailaren 23an. Zorionak aita, ama eta Asierran partetik.



SILVIA BENGOTXEA SAPPUPOK 6 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta Josebaren partetik.



EIDER PIKABEA MITXELENA beratarak otsailaren 14an 10 urte bete ditu. Zorionak Joseba, atta, eta amaren partetik.



IERAI DE LA CRUZ ARBURUA etxalartarrak 3 urte beteko ditu otsailaren 28an. Auniz urtez guraso eta familiaren partetik. Muxu bat.



ANDONI ETA IZARO IRIBARREN INDABURU etxalartarrek otsailaren 21ean eta otsailaren 26an 4 eta 8 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



ASIER GOIA DEL MORAL beratarak 6 urte beteko ditu otsailaren 28an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



HAIZEA ETXEBARRIA TERREROS lesakarrak 5 urte beteko ditu otsailaren 24an. Zorionak gure lorexoaro. Attatto, amatxo eta Ainara.



AXUN EZKURRERA URTXEOI doneztebarrak 18 urte beteko ditu otsailaren 21ean. Zorionak familiaren partetik. Muxu handi bat preioxia!




IRIGO OSKOZ GAGO doneztebarrak 7 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak familiaren partetik.



BEÑAT MARTIARENA doneztebarrak 7 urte beteko ditu otsailaren 23an. Zorionak Aurtizko familiaren eta bere-xiki Ekiñeren partetik.



JOSE ANTONIO ZABALETA ETA GLORIA BALEZTENA leitzarrek martxoaren 1ean 25. urteurrena betetzen dute. Zorionak eta ongi pasa Aurtizko familia eta bere-xiki beraien besoetako Ekiñeren partetik.



MAIALEN EZKURRA APEZTEKOA doneztebarrak 2 urte beteko ditu otsailaren 27an. Zorionak aitaxoren eta familiaren partetik.



ENAITZ TELLETXEA SEIN igantziarrak 3 urte bete ditu otsailaren 17an. Auniz urtez amatto eta ataxoren partetik.



JANIRE ANDRES ZAPIAIN beratarak 6 urte beteko ditu otsailaren 21ean. Zorionak eta muxuak.



EIDER PIKABEA MITXELENA beratarak 10 urte bete ditu otsailaren 14an. Zorionak eta mila muxu. Klan Estazion.



AINHOA ARBURUA OLAGARAI urteak beteko ditu otsailaren 20an. Auniz urtez Etxalarko eteko andre berriari, lagun-en partetik.



MANEX URRUTIAK 4 urte bete ditu otsailaren 20an. Auniz urtez aita, ama eta famili guzien partetik.



JAVIER ETA MIREN SEIN itundarrek otsailaren 25 eta martxoaren 17an urteak beteko dituzte. Auniz urtez eta muxu haundio bat aitaxo, amatxo, atautxi eta amatxiren partetik.

**NORBAIT ZORIONTZEKO,
BIDALI BERE ARGAZKIA,
TESTUA ETA 0,26 EUROKO
13 SEILO TTIPI-TTAPAKO
HELBIDERA:**

ttipi ttapa • Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA

LITERATUR LEHIAKETA

Gaia: «Herriak eta hizkuntzak. Euskara eta Euskal Herria»

- Lanak aurkezteko epea martxoaren 29an itxiko da.
- Lanak Bortzirietako Euskara Mankomunitatera igorri behar dira.
- SARIAK: 1.- 900 €
2.- 450 €
3.- Bortzirietako 16 eta 20 urte bitarteko gazteentzat 150 €
- Informazio gehiago edo oinarriak jaso nahi izanez gero:
Bortzirietako Euskara Mankomunitatea - 948 634125



Antolatzailea:

Laguntzaileak:

• EUSKADIKO KUTXA

• MARTIKO

• TABERNA EDARIAK

• BENTA MIGUEL



BORTZIRIETAN

IRAKASKUNTZA PUBLIKOA



ARANTZA: Herri Eskola
☎ 948 634 104

✓ Gure herriko
hizkuntza eta
kultura bultzatuz

✓ Dohainik

✓ Jantoki eta garraio
zerbitzuekin

✓ Integratzailea

✓ Teknologi berriez
baliatuta

✓ Haur eta Lehen
Hezkuntza herri
eskoletan

✓ DBH, Batxilergoak
eta LH bertako
institutuan



BERA: Ricardo Baroja E.P.
☎ 948 625 019



IGANTZI: Herri Eskola
☎ 948 637 829



ETXALAR: Landagain E.P.
☎ 948 635 215



LESAKA: Irain E.P.
☎ 948 638 006



TOKI-ONA Institutua
☎ 948 625 000

TXIKIAK HEZITUZ HAUNDITU

Izen ematea: otsailaren 17tik 28ra


TOKI ONA Institutua

Bera

EMAITZA ONAK

Euskadiko, Nafarroako eta "Toki Ona"ko azken bortz urtetako emaitzak konparatuz, IKUS EZAZU!!!:

	Euskadi	Nafarroa	TOKI ONA
DBHko Titulua	80,5	85,8	88,8
"Selektibitatea"	94,4	88,3	94,8
Lanbide H. Erdi Mailako Titulua	80	76	72,8
Lanbide H. Goi Mailako Titulua	88,2	85,4	97,5



ZATOZ GUREKIN IKASTERA

IZENA EMATEA: • D.B.H.rako: Otsailean

• Batxilergoa eta Lanbide Heziketarako: Maiatza-Ekainean